

Adingabe transen babesaren espainiar antolamendu juridikoan: aipamen berezia Euskadiko kasuari*

LATTIE UGALDE PEÑA

Deustuko Unibertsitateko Zuzenbideko eta
Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako gradudun bikoitza
Graduada en Derecho y Administración y
Dirección de Empresas por la Universidad de Deusto

FECHA DE RECEPCIÓN / SARRERA-DATA: 10/11/2022

FECHA DE ADMISIÓN / ONARTZE-DATA:

Laburpena: Nortasuna pertsona bakoitza ezberdin eta bakar bihurtzen duen elementua da, txiki-txikitatik garatzen doana, banakoaren arabera era batera edo bestera aldatuz. Nortasun honen barruan, atal desberdinen artean, bakoitzaren genero identitatea aurki daiteke, edonorentzat funtsezkoa delarik. Hori norbanakoari jaiotzan esleitutako sexuarekin bat etor daiteke, edo ez, azken hau pertsona transen kasu berezia izanik. Genero identitatearen nortasunezko izaera kontuan izanda, garbi dago hura eskubide lege ez aitortzeak pertsona trans bakoitzaren esentzia modu larrian kaltetzen duela, sentitutako sexuaren arabera garatzea galaraziz.

Larritasun hau areagotu egiten da pertsona adingabeen kasuan, jadanik ikusezintasunaren biktima den taldea, esan bezala, bizitzako une horretan hasten baitu bakoitzak bere identitaterako bidea. Era berean, eskubide bakan honek gizarte-bi-

*“Legelari gazteentzako Adrián Celaya Saria”ren VII. Edizioan saritutako lana, Akademia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademiak 2022 ean emana.

Academia Vasca de Derecho
Zuzenbidearen Euskal Akademia
ISSN: 2173-9102
DL./L.G.: BI-1677-03

Ilustre Colegio Notarial del País Vasco
Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestua
Boletín *JADO*. Bilbao. Año XVIII. Nº 31. Enero-Diciembre, 2023, pp. 289-340
JADO Aldizkaria. Bilbo. XVIII. urtea. 31 zk. 2023, Urtarrila-Abendua, 289-340 or.

Ilustre Colegio de la Abogacía de Bizkaia
Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsua

zitzaren esparru anitz ukitzen dituela agerikoa da, subjektu bakoitzaren izaeraren funtsezko osagaia izanik. Hori hala izanda, nahitaezkoa da pertsona transen eskubideak, orokorrean, eta adingabe transenak bereziki, ikuspuntu integral batetik iker-tzea, genero identitaterako eskubideak barneratzen dituen ondorioen zabaltasuna ulertzeko asmoz.

Gako-hitzak: adingabe trans; genero identitatea; pertsona transen eskubideak.

La protección de los menores trans en el ordenamiento jurídico español: mención especial al caso vasco

Resumen: La personalidad es el elemento que hace diferente y única a cada persona, que se va desarrollando desde muy pequeños, y que varía de un individuo a otro. Dentro de esta identidad, entre sus diferentes aspectos, se puede encontrar la identidad de género, fundamental para cualquiera. Esta identidad puede coincidir con el sexo asignado a cada individuo al nacer, o no, siendo este último el caso particular de las personas trans. Teniendo en cuenta el carácter identitario de la identidad de género, está claro que el hecho de que no se reconozca a la identidad de género como un derecho afecta gravemente a la esencia de cada persona trans, impidiendo su desarrollo en función del sexo que siente.

Esta gravedad se acrecienta en el caso de las personas menores de edad, un colectivo víctima de la invisibilidad, que, como se ha dicho, en ese momento de la vida inicia el camino hacia su propia identidad. Asimismo, es evidente que este derecho afecta a múltiples ámbitos de la vida social, al tratarse de un elemento esencial de la personalidad de cada sujeto. Por ello, es preciso investigar sobre los derechos de las personas trans desde un punto de vista integral, y de los menores trans, en particular, con el ánimo de comprender las consecuencias que el derecho a la identidad de género supone en toda su amplitud.

Palabras clave: menores trans; identidad de género; derechos de las personas trans.

The protection of trans minors in the Spanish legal system: special mention to the Basque case

Abstract: Personality is the element that makes each person different and unique, which develops from a very young age, and varies from one individual to another. Within this identity, among its different aspects, one can find gender identity, fundamental for anyone. This identity can coincide with the sex assigned to each individual at birth, or not, the latter being the particular case of trans people. Taking into account the identity nature of gender identity, it is clear that the fact that gender identity is not recognized as a right seriously affects the essence of each trans person, preventing their development based on the sex they feel.

This seriousness increases in the case of minors, a group that is victims of invisibility, which, as has been said, at that moment in life begins the path towards its own identity. Likewise, it is evident that this right affects multiple areas of social life, as it is an essential element of the personality of each subject. For this reason, it is necessary to investigate the rights of trans people from an integral point of view, and of trans minors, in particular, with the aim of understanding the consequences that the right to gender identity entails in its entirety.

Key words: trans minors; gender identity; rights of trans people.

AURKIBIDEA: LABURDUREN ZERRENDA. SARRERA. I. TRANSEXUALITATEA NAZIOARTEAN. (1.1.) Nazioarteko Zuzenbideko ereduaren bilakaera historikoa. (1.2.) Nazioarteko “Genero Identitatearen Zuzenbidea”. a) Yogyakartako Printzipioak. b) Nazio Batuen Erakundearen ekarpenak. (1.3.) Adingabe transen kasu berezia. II. ADINGABE TRANSEN BABES JURIDIKOA EUROPAKO KONTSEILUAN. (2.1.) Europako Kontseiluaren txosten eta ebazpenak. (2.2.) Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia. III. ADINGABE TRANSEN BABES JURIDIKOA EUROPAR BATASUNEAN. (3.1.) Oinarriak: Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia. (3.2.) Europar Batasuneko Zuzenbidearen babespeko pertsona transak egun. IV. ADINGABE TRANSEN BABES JURIDIKOA ESTATU MAILAN. (4.1.) Genero identitatearako eskubidearen Konstituzio oinarria. (4.2.) Transexualitatearen sinplifikazio juridikoa Estatu mailan. a) Jatorrizko jurisprudentzia garapena. b) 3/2007 Legea, martxoaren 15ekoa, pertsonen sexu aipamenaren erregistro zuzenketa arautzekoa. (4.3.) Adingabe transen genero identitatearen aintzatespenerantz. (4.4.) Pertsona transen berdintasun erreal eta eragingarrirako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko Lege Aurreproiektua. V. ADINGABE TRANSEN BABES JURIDIKOA AUTONOMIA ERKIDEGOETAN. (5.1.) Euskadiko kasua: oinarrietatik etorkizunerantz. VI. DE LEGE FERENDAKO PROPOSAMENAK. VII. ONDORIOAK. VIII. BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK. (8.1.) Bibliografia. (8.2.) Legeria. (8.3.) Jurisprudentzia.

LABURDUREN ZERRENDA

EAO:	Estatuko Aldizkari Ofiziala
EBAO:	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
EBJA:	Europar Batasuneko Justizia Auzitegia
EBOEG:	Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna
EESKNI:	Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna
EK:	Espainiako Konstituzioa
Erref.:	Erreferentzia
EZPNI:	Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna
GEAU:	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala
GEEA:	Giza Eskubideen Europako Auzitegia
GEEH:	Giza Eskubideen Europako Hitzarmena
HEBH:	Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena
NBE:	Nazio Batuen Erakundea
NBG:	Nazio Batuen Gutuna
NBGEB:	Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordea
NBGEGM:	Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandataria
or(r).:	orrialdea(k)
zkia.:	zenbakia
Z.O.:	Zuzenbideko Oinarria

SARRERA

Nortasuna pertsona bakoitza ezberdin eta bakar bihurtzen duen elementua da, txiki-txikitatik garatzen doana, banakoaren arabera era batera edo bestera aldatuz. Nortasun honen barruan, atal desberdinen artean, bakoitzaren genero identitatea aurki daiteke, edonorentzat funtsezkoa delarik. Hori norbanakoari jaiotzan esleitutako sexuarekin bat etor daiteke, edo ez, azken hau pertsona transen kasu berezia izanik.

Genero identitatearen nortasunezko izaera kontuan izanda, garbi dago hura eskubide lege ez aitortzeak pertsona trans bakoitzaren esentzia modu larrian kaltetzen duela, sentitutako sexuaren arabera garatzea galaraziz. Larritasun hau areagotu egiten da pertsona adingabeen kasuan, jadanik ikusezintasunaren biktima den taldea, esan bezala, bizitzako une horretan hasten baitu bakoitzak bere identitaterako bidea.

Era berean, eskubide bakan honek gizarte-bizitzaren esparru anitz ukitzen dituela agerikoa da, subjektu bakoitzaren izaeraren funtsezko osagaia izanik. Hori hala izanda, nahitaezkoa da pertsona transen eskubideak, orokorrean, eta adingabe transenak bereziki, ikuspuntu integral batetik ikertzea, genero identitaterako eskubideak barneratzen dituen ondorioen zabaltasuna ulertzeko asmoz.

Hau jakinda, lan honen helburua espainiar antolamendu juridikoak adingabe transei eskainitako babesa aztertzea litzateke, euren genero identitaterako eskubidea bermatuta ote dagoen ikertuz. Hortaz, Nazioarteko Zuzenbidetik hasita, Estatuan ezargarri diren iturriak kontuan izango dira, Euskadiko kasuari aipamen berezia eskainiz. Horretarako, iraganari eta orainari erreparatzeaz gain, etorkizunari buruzko gogoeta ere egingo da, egun aurreikusitakoa indartzeko asmoz, proposamenak aurkeztuz.

Lanaren xedea betetzeko beharrezko zen ikerketa egite aldera erabilitako metodologia doktrinaren, legeriaren eta jurisprudentziaren azterke-

tan oinarritu da, era egokian jasoak, metodo kontinentalaren arabera. Aipatutako iturriak eskuratzeko tresnei dagokienez, Océano, Dialnet, EAO, EBAO, EUR-lex, Aranzadi Instituciones eta CENDOJ datu baseak erabili dira, besteak beste.

I. TRANSEXUALITATEA NAZIOARTEAN

1.1. Nazioarteko Zuzenbideko ereduaren bilakaera historikoa

Zuzenbidea ezin da gizartetik at existitu, azken honekin batera sortu eta eraldatzen doan zientzia baita. Hortaz, orokorrean gertatu legez, pertsona transen inguruko nazioarteko arauketaren esparruan ere bilakaera bat bizi izan da¹.

Lehenik, transexualitatea eredu mediku bidez ulertzen zen, gaitzat joz. Pertsona transen bazterkeria euroi leporatzen zitzaaien, hura saihesteko era bakarra pertsona transak tratamendu bidez “osatu” eta generoaren ikuskera bitarrera moldatu ostean berriz gizarteratzea izanik². Hori Gai-xotasunen Nazioarteko Sailkapenak (CIE-9) eta Buru asalduren diagnosi eta estatistika eskuliburuak (DSM-III) indartu zuten, aurreikusitako gai-xotasunen artean “transexualitatea” barneratuz.

Gutxinaka, oinarri guztiz kontrakoak dituen eredu baterainoko trantsizioa somatzen hasi da: aintzatespenaren eredu, transexualitatea gizakion aniztasunaren barruan gertatzen den fenomenotzat jotzen duena. Hala, pertsona transek bizitako bazterkeria ez zaio euren genero identitateari

¹ HAMMARBERG, T. “Derechos Humanos e Identidad de Género”. *TvT argitalpen-saila*. 2010eko urtarrila, 1. lib., 3. or.

² LENGUA PARRA, A. “La trans-formación del Derecho: La evolución del Derecho Internacional de los Derechos Humanos para proteger la identidad de género de las personas trans”. *Ius et veritas*. 2019ko azaroa, 59. zkia., 210.-211. orr.

zor, gizartetik datozen eragozpenei baizik, eta horiek leuntzeko bideak sortzea litzateke konponbidea.

Ikus daitekeenez, eredu hau genero identitatearen planteamendu integralago baten isla da, pertsona transen eskubideak babesteko proposa-
goa. Hori, arestian aipatutako eskuliburu medikuek “transsexualitatearen”
ordez “genero disforia” jasotzearekin batera, erabakigarria izan zen, eredu
hau sendotze aldera³.

1.2. Nazioarteko “Genero Identitatearen Zuzenbidea”

Giza Eskubideei buruzko itunek berdintasuna dute oinarri, xedapen jakinek arrazoi zehatzetan oinarritutako bereizkeria erabat debekatzen dutelarik⁴. Hori gertatzen da NBGarekin⁵, GEAUrekin⁶, EZPNirekin⁷ eta EESKNirekin⁸. Xedapenotan, arrazoiak zerrendatzean, ez zaio genero identitateari aipamenik egiten⁹.

³ LENGUA PARRA, A. “La trans-formación del Derecho...”. *Op. cit.*, 211.-213. orr.

⁴ NAZIO BATUEN GIZA ESKUBIDEETARAKO GOI MANDATARIAREN BULEGOA. *Informe sobre Leyes y prácticas discriminatorias y actos de violencia cometidos contra personas por su orientación sexual e identidad de género*. Geneva: Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoa, 2011ko azaroak 17, A/HRC/19/41.

⁵ Nazio Batuen Gutuna, San Frantziskon sinatua 1945eko ekainaren 26an.

⁶ Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, Parisen sinatua 1948ko abenduaren 10ean.

⁷ Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, New Yorken sinatua 1966ko abenduaren 19an. Espainiaren atxikitze tresna, 1977ko apirilaren 30ekoa, EBAOren 103. zkia.

⁸ Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, New Yorken sinatua 1966ko abenduaren 19an. Espainiaren atxikitze tresna, 1977ko apirilaren 30ekoa, EBAOren 103. zkia.

⁹ Ikus NBGko 1.3 artikulua, amaiera-esapide gabe bukatzen dena; eta GEAUko, EZPNIko eta EESKNiko 2.1, 2.1 eta 2.2 artikulua, hurrenez hurren, aipatutako zerrenda “edo bestelako baldintzengatik” esapidez bukatzen dutenak.

Zinez, halako zerrendak *numerus apertus* izaerakoak dira, arrazoiak adibide adierazgarritzat hartu behar direlarik, nazioarteko organoek bestelako inguruabarrak gehitzea posible izanik¹⁰.

Hori hala izanda, MARTÍNEZ DE PISÓN¹¹-en aburuz, genero identitatea zio zehatz bezala ez aurreikusteak pertsona transen eskubideak kalte ditzake, euren errealitatearen ikusezintasuna areagotuz. Edonola ere, horrek ez du Nazioarteko “Genero Identitatearen Zuzenbidea” eratzea galarazi, izaera anitzeko iturri bidez.

a) *Yogyakartako Printzipioak*

Yogyakartako Printzipioak¹² 2006an batzartutako giza eskubideen arloko adituen lanaren emaitza dira, Nazioarteko Giza Eskubideei buruzko arauketatik eratorritako printzipio juridikoak eratzea helburu zuena, sexu-orientazio eta genero identitateagatiko eskubide urraketeki aplikatze-koak, Estatuen betebeharrak ere argituz.

Nabarmentzekoa da Yogyakartako bigarren printzipioa, beren beregi jasotzen baitu “genero identitatea” bereizkeria arrazoi moduan. Horrez gain, genero identitate kontzeptuaren definizioa¹³ jasotzen du.

¹⁰ LENGUA PARRA, A. “La trans-formación del Derecho...”. *op. cit.*, 214.-215. orr.

¹¹ MARTÍNEZ DE PISÓN, J. “Sexo, Género y Derechos: Del ‘Derecho a la Orientación Sexual y la Identidad de Género’ al ‘Derecho a la Libre Determinación del Género’”. *Derechos y libertades*. 2022ko urtarrila, 46. zkia., 39.-41. orr.

¹² JURISTEN NAZIOARTEKO BATZORDEA. *Principios de Yogyakarta: Principios sobre la aplicación de la legislación internacional de derechos humanos en relación con la orientación sexual y la identidad de género*. Yogyakartako Printzipioen webgunea: http://yogyakartaprinciples.org/wp-content/uploads/2016/08/principles_sp.pdf (Azken kontsulta 2022ko apirilaren 5ean).

¹³ “Genero identitatea norberak generoaz duen barne bizipena da, bakoitzak sakonean sentitzen duen moduan; eta hori bat etor daiteke, ala ez, jaiotzazko sexuarekin. Bizipenaren barne daude gorputzaren bizipen pertsonala (batzuetan itxura edota gorputz funtzioak aldaraztera ere irits daiteke mediku, kirurgi nahiz bestelako bitartekoak baliatuz, be-

*Atingabe transen babesa espainiar antolamendu juridikoan:
aipamen berezia Euskadiko kasuari*

Euron izaera loteslea ez bada ere, Estatu askok horiexek oinarri hartzea erabaki dute, euren barne-legeria espezifikoa garatzeko. Are gehiago, nazioartean ere, NBGEBk berenganatu ditu, hala nazioarteko giza eskubideei buruzko arauketaren ezarpenaren printzipio gidatzaileak bilakatuz.

b) *Nazio Batuen Erakundearen ekarpenak*

NBEaren giza eskubideei buruzko testuen genero identitatearen aipamen eza gainditzeko ekarpen anitz egin dira, lotesle ez diren testu eta adierazpen bidez.

Hasteko, NBGEBren 35. Ohar Orokorra nabarmentzekoa da, EZPNiko 9. artikuluari buruz mintzo dena. Bertan, “genero identitatean oinarritutako indarkeria” aipatzen da, bereizkeria arrazoi bat izan daitekeela aitortuz¹⁴.

Ildo beretik, Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaren Batzordeak argitaratutako 20. Ohar Orokorrak EESKNIren “edo bestelako baldintza sozialengatik” esapideak barneratzen dituen inguruabarren artean genero identitatea ere badagoela konfirmatzen du¹⁵.

Ideia hau indartze aldera, Batzorde hauek pertsona transen bereizkeriari buruzko aipamenak egin dituzte bestelako agirietan ere, esparru ezberdinei dagokienez¹⁶.

tiere aukera hori nahita egin denean) bai eta bestelako genero adierazpenak ere, hala nola janzkera, hizketa modua eta jokamoldeak”.

¹⁴ NBGEB. *Observación general n° 35: Artículo 9 (Libertad y seguridad personales)*. 2014ko abenduak 16, CCPR/C/GC/35, 9. paragrafoa.

¹⁵ NAZIO BATUEN ESKUBIDE EKONOMIKO, SOZIAL ETA KULTURALEN BATZORDEA. *Observación general n° 20: La no discriminación y los derechos económicos, sociales y culturales (artículo 2, párrafo 2 del Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales)*. 2009ko uztailak 2, E/C.12/GC/20, 32. paragrafoa.

¹⁶ Ikus NBGEB. *Examen de los informes presentados por los Estados partes de conformidad con el artículo 40 del Pacto: Observaciones finales del Comité de Derechos Humanos: Irlanda*. 2008ko uztailak

Bestalde, NBGEBk, 2011ko uztailek 14ko A/HRC/RES/17/19 ebazpena zela bide, NBGEGMri txosten bat prestatzea esleitu zion, sexu-orientazio eta genero identitateari begira diskriminatzaileak ziren legeen eta arrazoiotan oinarritutako indarkeriaren ingurukoa¹⁷. Ondorioz, NBGEGMk lehen txostena¹⁸ argitaratu zuen 2011n, eskatutakoa aztertuz eta bereizkeriok gainditzeko Nazioarteko Giza Eskubideen Zuzenbidea aplikatzeko erak gomendatuz. Ebazpenaz geroztik, genero identitatea NBEaren lehentasunezko gaien artean dago, gaiari buruzko Aditu Independentea eratzea erabaki zelarik¹⁹.

1.3. Adingabe transen kasu berezia

Kolektibo transak jasandako bazterkeria areagotu egiten da, trans izaiteari adingabe izatea gehitzen bazaio. Ildo horretatik, orain arte aztertutako iturriak adingabe transei ezargarri zaizkie, adingabetasun inguruarbarretik eratorritakoekin batera.

Noski, HEBH²⁰ da erreferentziazko testu loteslea, esparru honetan. Hitzarmen honek ere ez du genero identitatea bereizkeria arrazoi mo-

30, CCPR/C/IRL/CO/3, 8. paragrafoa; NAZIO BATUEN ESKUBIDE EKONOMIKO, SOZIAL ETA KULTURALEN BATZORDEA. *Consideration of reports submitted by States parties under articles 16 and 17 of the Covenant: concluding observations of the Committee on Economic, Social and Cultural Rights: Poland*. 2009ko abenduak 2, E/C.12/POL/CO/5, 12. paragrafoa; besteak beste.

¹⁷ NBGEB. *Derechos humanos, orientación sexual e identidad de género: Resolución aprobada por el Consejo de Derechos*. 2011ko uztailek 14, A/HRC/RES/17/19.

¹⁸ NAZIO BATUEN GIZA ESKUBIDEETARAKO GOI MANDATARIAREN BULEGOA. *Informe sobre Leyes y prácticas discriminatorias y actos de violencia cometidos contra personas por su orientación sexual e identidad de género*. Geneva: Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoa, 2011ko azaroak 17, A/HRC/19/41.

¹⁹ MARTÍNEZ DE PISÓN, J. "Sexo, Género y Derechos...". *Op. cit.*, 44. or.

²⁰ Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena, New Yorken sinatua 1989ko azaroaren 20an. Espainiaren atxikitze tresna, 1990eko abenduaren 31koa, EAoren 313. zkia.

duan aurreikusten bere 2.1 artikuluan. Hala ere, Haurren Eskubideen Batzordearen 15. Ohar Orokorrek²¹ xedapen horrek genero identitateagatiko bereizkeria debekatzen duela argitu zuen.

Horrez gain, Haurren Eskubideen Batzordearen 20. Ohar Orokorrek adingabe transek euren genero identitatea errespetatua izateko eskubidea dutela azpimarratzen du. Gainera, Estatuek derrigorrezko sexu berresleipen kirurgiak ezartzen dituzten legeak indargabetu²² eta adingabe transak babesteko beharra adierazten du²³.

Are gehiago, HEBHak adingabeen ikuskera goitik behera eraldatu zuen, izan ere, horiek babespeko objektu gisa tratatu ordez, Zuzenbideko subjektutzat hartzen ditu²⁴. Ondorioz, adingabe transen esparrura hurre-ratuta, hauek giza eskubide ororen titular direla suposatzen du horrek, eta Hitzarmeneko Estatu sinatzaile ezberdinetan pertsona trans helduei aitortutako eskubideak adingabeen ere ezargarri izan beharko litzaizkiekeela²⁵.

²¹ NAZIO BATUEN HAURREN ESKUBIDEEN BATZORDEA. *Observación general n° 15 (2013) sobre el derecho del niño al disfrute del más alto nivel posible de salud (artículo 24)*. 2013ko apirilak 17, CRC/C/GC/15.

²² Eskaera hau Yogyakartaeko Printzipioen “genero identitate” definizioarekin bat dator, baita 18. printzipioarekin ere, abusu medikuen aurkako babesari buruzkoa.

²³ Horrez gain, beste zenbait agirik ere adingabe transen eskubideen babesaren alde egi-ten dute, hala nola, geroago aipatutako den 2048 (2015) ebazpenak edo NBGEGMaren 2016ko txostenak (NAZIO BATUEN GIZA ESKUBIDEETARAKO GOI MANDATARIAREN BULEGOA. *Living Free & Equal: What States are Doing to Tackle Violence and Discrimination against Lesbian, Gay, Bisexual, Transgender and Intersex People*. 2016ko urria, HR/PUB/16/3, 121. or.).

²⁴ LENGUA PARRA, A. “La trans-formación del Derecho...”. *Op. cit.*, 222. or.

²⁵ Zuzenbide konparatu legez, ikus Giza Eskubideen Sistema Interamerikarra osotzen duten Batzorde eta Gortearen txosten eta epaiak, genero identitatearen esparruan aurre-rakoiak baitira.

II. ADINGABE TRANSEN BABES JURIDIKOA EUROPAKO KONTSEILUAN

2.1. Europako Kontseiluaren txosten eta ebazpenak

Esparru honetan, adingabeentzako xedapen berezirik ez dagoenez, testu orokorrak dira ezagarri. Zentzu honetan, Europako Kontseiluko Giza Eskubideen Kontseilariak landutako 2009ko *Issue Paper*²⁶ funtsezkoa da, Giza Eskubide eta Genero Identitateari buruzkoa. Bertan, pertsona transen eskubideen babeserako oinarri har daitekeen Zuzenbideari aipamena egiten zaio. Dena dela, atal esanguratsuen Estatu kideentzako gomendioen zerrenda litzateke. Laburbilduz, gomendioak hurrengo gaiet buruzkoak dira: a) Pertsona transak genero identitateagatik bereizkeriaren aurrean babestea; b) Genero identitatea aldatzeko prozesuan euren duintasunaren aurkako baldintzak ez eskatzea; eta c) Gizartea transexualitatearen eta horrek dakartzan bereizkerien gainean hezteak.

Bestalde, 2048 (2015) ebazpenak ere, Europan pertsona transek jasandako bereizkeriari buruzkoa²⁷, Estatu kideentzako gomendioak dakartza. Oraingoan, testuak berak atal ezberdinetan sailkatzen ditu, babestu nahi den esparruaren arabera: a) Bereizkeriaren aurkako arauketa; b) Generoaren legezko aintzatespena²⁸; c) Osasuna eta generoa berresleitzeko tratamendua; eta d) Informazioa, kontzientziazioa eta hezkuntza.

²⁶ HAMMARBERG, T. “Derechos Humanos e Identidad de Género”. *TvT argitalpen-saila*. 2010eko urtarrila, 1. lib., 3. or.

²⁷ EUROPAKO KONTSEILUKO PARLAMENTUKO ASANBLADA. *Resolution 2048-Discrimination against transgender people in Europe*. 2015eko apirilak 22, 2048 (2015).

²⁸ Azpimarragarria da, atal honetan, adingabeen interesak babesteko gomendioa.

2.2. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia

GEEHk²⁹ ez du genero identitateri buruzko xedapenik aurreikusten, hortaz, GEEAk 8. artikuluko bititza pribaturako eskubidearen osagai gisa interpretatu du kontzeptu hau. Auzitegiak erabateko trantsizioa izan duela esan beharra dago, esparru honi dagokionez.

Hasieran, GEEAren jurisprudentziak eredu medikua islatzen zuen. Pertsona transen eskubideei buruzko lehen epaia 9532/81 zenbakikoa litzateke, 1986ko urriaren 17koa³⁰. Kasuan, Erresuma Batuak ez zion demandatzaileari jaiotza agiriko sexu aipamena eraldatzen utzi, Estatuaren aburuz hori faltsutzea bailitzake, erregistroko aipamenei sexu biologikoari soilik erreferentzia egin dakioketen heinean. Estatuak haren esku zegoen guztia egin zuela argudiatu zuen Auzitegiak, barne-legeriak ezarritako mugekin bat; pertsona transei buruzko legeriari zegokionez Estatu kideen irizpen-tartea zabala zela baieztatuz eta transexualitatea eredu medikuaren arabera definituz, GEEHko 8. artikulua urratu gabe³¹.

Ikuspegi aldaketa 28957/95 zenbakiko epai entzutetsuan eman zen, 2002ko uztailaren 11koa³². Lehenagoko kasuetan gertatu legez, demandatzaileak, emakume transa, Erresuma Batuaren kontra egin zuen, GEEHaren 8. artikulua urraketa alegatuz, Estatuak bere jaiotza agiriko sexu aipamena aldatzeari uko egin baitzion, bere eskubideak kolokan

²⁹ Europako Kontseiluko Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Europako Hitzarmena, Erroman sinatua 1950eko azaroaren 4an. Espainiaren atxikitze tresna, 1979ko urriaren 10ekoa, EAoren 243. zkia.

³⁰ GEEAren 9532/81 epaia, 1986ko urriaren 17koa, Rees Erresuma Batuaren kontra.

³¹ Zentzu berean: GEEAren 10843/84 epaia, 1990eko irailaren 27koa, Cossey Erresuma Batuaren kontra; eta GEEAren 21830/93 epaia, 1997ko apirilaren 22koa, X, Y eta Z Erresuma Batuaren kontra.

³² GEEAren 28957/95 epaia, 2002ko uztailaren 11koa, Christine Goodwin Erresuma Batuaren kontra.

jarriz. GEEAk, lehen aldiz, bere doktrina jurisprudentziala atzean utzi eta kasua GEEHaren benetako helburua babesteko era egokian interpreta-tzea erabaki zuen, orduko inguruabarren argitan³³.

GEEAren aburuz, sexu aipamenaren aldaketa ezak demandatzailearen-ganako bereizkeria zekarren, esparru ezberdinetan³⁴. Horrez gain, lehe-nago jarraitutako eredu medikuak pertsona transen lege aintzatespenean eraginik izan behar ez lukeela adierazi zuen Auzitegiak³⁵. Bukatzeko, halako bereizkeriak iraganean Estatuari aitortutako irizpen-tarte zabale-tik kanpo daudela azaldu zuen, Estatuak pertsonen genero identitatea errespetatu dadin beharrezko agiriak luzatu behar dituztela argituz, eta 8. artikulua urratu zela epaituz³⁶.

Auzitegiak ondoren emandako epaiak zentzu bera jarraitzen dute, dok-trina hau bateratuz. Euren artean, 35968/97 zenbakiko epaiak, 2003ko ekainaren 12koa³⁷, ekarpen interesgarria egiten du, Estatuaren betebeharre-i dagokienez. GEEAk sexua berresleitzeko kirurgia jasotzeko “behar me-dikua” egiaztatzeko derrigortasuna baztertu zuen. Hortaz, Estatu batek pertsona transei halako kirurgia jasotzeko aukera ukatzeak GEEHeko 8. artikulua urraketa suposatzen du. Horrenbestez, Auzitegiak identitate aldaketa prozesu bat hastea norberaren esku dagoela aitortu zuen, identi-tate autodeterminaziorako lehen funtsak agertuz³⁸.

³³ Christine Goodwin Erresuma Batuen kontra, 74 eta 75 paragrafoak.

³⁴ Christine Goodwin Erresuma Batuen kontra, 76 eta 77 paragrafoak.

³⁵ Christine Goodwin Erresuma Batuen kontra, 83 paragrafoa.

³⁶ Christine Goodwin Erresuma Batuen kontra, 93 paragrafoa.

³⁷ GEEAren 35968/97 epaia, 2003ko ekainaren 12koa, Van Kück Alemaniaren kontra.

³⁸ MERINO SANCHO, V. “Una Revisión de la Jurisprudencia del Tribunal Europeo de De-rechos Humanos sobre la Intimidad Sexual y la Autonomía Individual”. *Derechos y liberta-des*. 2018ko urtarrila, 38. zenbakia, 349. or.

III. ADINGABE TRANSEN BABES JURIDIKOA EUROPAR BATASUNEAN

3.1. Oinarriak: Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia

Europar Batasunera hurreratuta, EBOEGak³⁹ bereizkeriarik eza bere 21. artikuluan jasotzen badu ere, debekatutako arrazioen artean ez da genero identitatea aurreikusten. Horrela, eskubide honen oinarriak finkatze aldera, EBJA izan da protagonista.

EBJAK bere C-13/94 epaian, 1996ko apirilaren 30ekoa⁴⁰, aztertu zuen pertsona trans baten inguruko kasu bat, estreinakoz. Kasuan, demanda-tzaileak sexu-bereizkeriaren biktima izan zela alegatu zuen; lanetik bidegabe kaleratua izan baitzen, sexua berresleitzeko kirurgia jaso izanean oinarrituta.

Auzitegiak 76/207/EEE Zuzentarauko⁴¹ 5.1 artikulua urraketa baieztatu zuen, lan esparruko tratu berdintasunaren esangurari buruzkoa, izan ere, Zuzentaruaren ezarpen eremuak sexu-arrazoizko bereizkeria ekiditea ez ezik, sexu aldaketen ondorioz azaleratutako diskriminazioak ekiditea ere barneratzen zuen. EBJAren aburuz, halako bereizkeriek biktimaren sexua dute oinarri, hark jaiotza sexua mantendu izan balu ez baitziren gertatuko⁴².

³⁹ Europar Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Gutuna, 2000ko abenduaren 7koa, EBAOren C 364/5 zkia.

⁴⁰ EBJAren C-13/94 epaia, 1996ko apirilaren 30ekoa, P. S. eta Cornwall County-ren kontra, ECLI:EU:C:1996:170.

⁴¹ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 76/207/EEE Zuzentaruak, 1976ko otsailaren 9koa, Enplegu, formazio, promozio eta lan baldintza gaietan gizon eta emakumeen arteko tratu berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa, EBAOren L039 zkia.

⁴² P. S. eta Cornwall County-ren kontra, 20 eta 21 atalak.

Zentzu berean, C-117/01 epaian, 2004ko urtarrilaren 7koa⁴³, eta C-423/04 epaian, 2006ko apirilaren 27koa⁴⁴, EBJAk pertsona transek jasan ditzaketen bereizkeria motak aztertu zituen, kasuan kasuko epaitzak emanez, eta arestian azaldutako epaiak hasitako babes-joera jarraituz. Dena dela, ebazpenotatik ondoriozta daiteke, EBJAk Estatu kideei itzelezko irizpen-tartea eskaini zuela, legezko genero aintzatespena lortzeko beharrezko baldintzak ezartzeari zegokionez⁴⁵.

Epaiok Europar Batasunean genero identitatea eta haren aintzatespena jorratzen hasteko funtsezkoak izan baziren ere, legegileak ez du jurisprudentzia hau Zuzenbide positiboan jaso⁴⁶. Are gehiago, oraindik genero identitateagatiko bereizkeria ez da esplizituki aurreikusten Europar Batasuneko Zuzenbidean, askotan sexu-orientazioagatiko diskriminazioarekin nahasten delarik⁴⁷. Egia da EBJAren jurisprudentzia honi erreferen-

⁴³ EBJAren C-117/01 epaia, 2004ko urtarrilaren 7koa, K.B. National Health Service Pensions Agency eta Secretary of State for Health-en kontra, ECLI:EU:C:2004:7, 34 atala: “Una legislación como la controvertida en el litigio principal, que vulnera el CEDH y que impide que una pareja como K.B. y R. cumpla el requisito del matrimonio, necesario para que uno de ellos pueda disfrutar de un elemento de la retribución del otro, debe considerarse, en principio, incompatible con las exigencias del artículo 141 CE”.

⁴⁴ EBJAren C-423/04 epaia, 2006ko apirilaren 27koa, Sarah Margaret Richards v Secretary of State for Work and Pensions-en kontra, ECLI:EU:C:2006:256, 38 atala: “De lo anterior resulta que el artículo 4, apartado 1, de la Directiva 79/7 debe interpretarse en el sentido de que se opone a una legislación que no reconoce la pensión de jubilación [...] a una persona que [...] cambia de sexo masculino a sexo femenino, cuando esa misma persona habría tenido derecho a tal pensión a la edad de 60 años si se hubiera considerado que, según el Derecho nacional, era mujer”.

⁴⁵ OSELLA, S. “The Court of Justice and gender recognition: A possibility for an expansive interpretation?” *Women’s Studies International Forum*. 2021eko ekaina, 87. lib., 4. or.

⁴⁶ BELL, M. “Gender Identity and Sexual Orientation: Alternative Pathways in EU Equality Law”. *The American Journal of Comparative Law*. 2012ko urtarrila, 60. lib., 130. or.

⁴⁷ DÍAZ LAFUENTE, J. “La Protección de los Derechos Fundamentales frente a la Discriminación por Motivos de Orientación Sexual e Identidad de Género en la Unión Europea”. *Revista General de Derecho Constitucional*. 2013, 17. zkia., 5. or.

tzia egiten zaiola 2006/54/EE Zuzentarauko⁴⁸ Hitzaurreko 3. puntuan, baina haren esangura ez da hain azpimarragarria, aipamen hori ez baitute lege-testuko artikuluek jasotzen⁴⁹.

3.2. Europar Batasuneko Zuzenbidearen babespeko pertsona transak egun

Aurreko atalean aztertutako kasuetan arazo ezberdinak jorratu baziren ere, EBJAren aurrera joan zen pertsona trans orok ezaugarri bat partekatzen zuen: denek sexu berresleipen kirurgia jaso zuten, edo jasotzekotan zeuden. Horrek, ostera ere, pertsona transen ikuskera medikua azaleratzen du, Yogyakartako Printzipioetako genero identitatearen definizioaren atal handi bat guztiz bazter utziz: inolako sexu berresleipen prozedura medikurik jasoko ez duten pertsonak, euren sentitutako generoa eta jaiotzan esleitutako sexua bat ez badatoz ere.

Orainsuagoko C-451/16 epaia, 2018ko ekainaren 26koa⁵⁰, desberdina da lehenago Auzitegiak epaitutako kasuen esentziari dagokionez, honetan ez baita genero aintzatespen eza eztabaidatzen, hura lortzeko Erresuma Batuak ezarritako baldintza baten zilegitasuna baizik (ezkontza desegiteko beharra). Hasiera baten, EBJAren epaitzak genero aintzatespena lortzeko prozeduren egokitasun eta eskubideekiko errespetuaren alde egiten duela pentsa daitekeen arren, Auzitegiaren pertsona transen

⁴⁸ Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/54/EE Zuzentaruua, 2006ko uztailaren 5ekoa, Enplegu eta okupazio gaitan gizon eta emakumeen arteko tratu berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa (Testu Bategina), EBAOren L204 zkia.

⁴⁹ Zentzu berean: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaruua, 2012ko urriaren 25ekoa, Delitu biktimen eskubide, berme eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzeko, Kontseiluaren 2001/220/JAI Erabakia ordeztzeko, EBAOren L315 zkia., Hitzaurreko 9. puntua.

⁵⁰ EBJAren C-451/16 epaia, 2018ko ekainaren 26koa, MB Secretary of State for Work and Pensions-en kontra, ECLI:EU:C:2018:492.

ulkerera oraindik oso murrizta dela antzematen da: “sexua berresleitzeko kirurgia jaso” duten pertsonak⁵¹.

Beraz, zalantza nabarmen bat dago airean: EBJAren jurisprudentziatik eratorritako genero identitaterako eskubidearen babesa sexu berresleipen kirurgia jaso duten pertsona transei soilik zaie ezargarri? Eta horrek zer eragin du adingabe transetan?

Lehen galderaren erantzuna ezezkoa da, OSELLA⁵²-ren ustez. Berak dioenez, EBJAk ez du pertsona transen definizio propiorik eraiki, horrek interpretazio malguagoi atea zabaltzen dielarik. Gainera, Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, sexu berresleipen kirurgia ez da genero aintzatespena jasotzeko betebeharrak, aintzatespen hori eskuratzeko baldintza nahikoa baizik, hortaz, horrek ez ditu bestelako pertsonak Europar Batasuneko genero identitaterako eskubidearen babespetik baztertzen. Azken finean, Auzitegiaren epaitzak sexu berresleipenari buruz mintzo dira, demandatzaileek ezaugarri hori dutelako, ez bestelako pertsona transei babesik aitortzen ez zaielako.

Adingabe transei dagokienez, aztertutako Europar Batasuneko Zuzenbidea aplikagarri zaie, pertsona transak diren heinean. Dena dela, nazioartean gertatu legez, ez dago beren beregi transexualitatearen eta adingabetasunaren ezaugarriak bateratzen dituen lege babeslerik. Beste behin ere, orokortasunean murgilduta dago talde honen babes juridikoa: adin nagusiek jaso ditzaketen bermeen titular badira ere, eurek jasan ditzaketen bereizkeria bakanek ez dute babesik jasotzen.

Horrez gain, EBJAk ere ez du adingabe transen kasurik aztertu, beraz, jurisprudentzia aldetik ere, orokorrean finkatutakoa ezargarri zaie, kontsiderazio berezirik gabe.

⁵¹ MB Secretary of State for Work and Pensions-en kontra, 35 atala.

⁵² OSELLA, S. “The Court of Justice...”. *Op. cit.*, 4. eta 5. orr.

Ondorioz, Europar Batasunean ere adingabe transen ikusezintasuna nagusitzen dela argi dago, euren babesgabetasun berezia ekiditeko Zuzenbideko instrumentu berezirik ez dagoelarik.

IV. ADINGABE TRANSEN BABES JURIDIKOA ESTATU MAILAN

4.1. Genero identitaterako eskubidearen Konstituzio oinarria

EKK⁵³ ez du genero identitaterako eskubiderik aurreikusten, beren beregi. Dena dela, horrek ez dakar Konstituzio oinarririk eza, izan ere, doktrinak eta jurisprudentiak azaleratu moduan, oinarrizko eskubide anitzek genero identitatearen aintzatespena barneratzen dute.

Hasteko, izenak berak adierazi legez, genero identitatea gizakion nortasunaren atala da, hortaz, logikoa dirudi doktrinak haren oinarri legez EKKko 10.1 artikuluko duintasun eta nortasunaren garapen askea proposatzea⁵⁴. Horrez gain, EKKko 14. artikulua ere nabarmentzekoa da doktrinaren ustez, berdintasunari eta bereizkeria ezari buruz mintzo den heinean. Debekatutako arrazoiek genero identitatea jasotzen ez badute ere, arinago ere beste testu batzuetan aztertu bezala, ÁLVAREZ SUÁREZ⁵⁵-ek hura “beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialengatik” esamoldean islatuta dagoela interpretatu behar dela deritzo.

⁵³ Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 29koa, EAO 311. zkia.

⁵⁴ ÁLVAREZ SUÁREZ, L. “Patologización e Invisibilización de la identidad de género en España: ¿qué debemos aprender de la legislación argentina?”. *Opinión Jurídica*. 2020ko uztaila-abendua, 19. lib., 39. zkia., 96.-97. orr.; GÓMEZ LAPLAZA, M. C. “Transexualidad”. *Revista Doctrinal Aranzadi Civil-Mercantil*. 2004, 1. zkia., 13. orr.; MALDONADO, J. “El Reconocimiento del Derecho a la Identidad Sexual de los Menores Transexuales en los Ámbitos Registral, Educativo y Sanitario”. *RJUAM*. 2007, 36. zkia., 146. orr.

⁵⁵ ÁLVAREZ SUÁREZ, L. “Patologización e Invisibilización...”. *Op. cit.*, 96.-97. orr.

Doktrinaren aldetik, bestelako oinarritzko eskubideak ere proposatu dira, genero identitatearen funts gisa. Horien artean EKko 43.1 artikuluko osasunaren babeserako eskubidea, 15 artikuluko osotasun fisiko eta moralerako eskubidea eta 18.1 artikuluko intimitaterako eskubidea⁵⁶ aipa daitezke⁵⁷.

Hori hala izanda, jurisprudenziak ere zer esanik izan du, genero identitaterako eskubidea EKn oinarritzeari dagokionez. Zehazki, Auzitegi Gorenaren 1988ko uztailaren 15eko epaiak⁵⁸, EKko 10.1 artikuluko nortasunaren garapen askerako eskubideak gizabanakoan aldaketa fisikoak ere barneratzen dituela adierazi zuen, horiek legezkoak izanda, betiere. Horrela, 10.1 artikulua zabala bada ere, transexualitatea funtsatzeko balio zuela ezarri zuen Auzitegi Gorenak. Ondoren, geroagoko epaietan ere oinarri bera konfirmatu zuen Auzitegiak⁵⁹.

Ondorioz, doktrinaren eta jurisprudenziaren ekarpenak bateratuta, genero identitaterako eskubideak Konstituzio oinarri argi bat duela ondoriozta daiteke, EKko 10.1 artikuluko nortasunaren garapen askean. Horrez gain, genero identitate kontzeptuaren zabaltasunak bestelako eskubideak ere azpimarratzera garamatza, pertsona transen kasuan duten esangura bereziagatik, funts moduan ez bada ere. Multzo honetan sartuko lirateke arestian aipatutako EKko 43.1, 15 eta 18.1 artikuluetako eskubideak, esaterako⁶⁰.

⁵⁶ GEEAren jurisprudenziak proposatutakoarekin bat.

⁵⁷ GÓMEZ LAPLAZA, M. C. "Transexualidad". *Op. cit.*, 17. or.

⁵⁸ Auzitegi Gorenaren 1988ko uztailaren 15eko epaia, 10. Z.O. Erref.: CENDOJ, 9445/1988.

⁵⁹ Ikus Auzitegi Gorenaren 1989ko martxoaren 3ko epaia, 3. Z.O. Erref.: Aranzadi, RJ\1989\1993; Auzitegi Gorenaren 1991ko apirilaren 19ko epaia, 3. Z.O. Erref.: Aranzadi, RJ\1991\2725; besteak beste.

⁶⁰ ÁLVAREZ SUÁREZ-ek EKko 32 artikuluko ezkontza eskubidea eta 35 artikuluko lanerako eskubidea ere nabarmentzen ditu.

4.2. Transexualitatearen sinplifikazio juridikoa Estatu mailan

a) *Jatorrizko jurisprudentzia garapena*

Espainiako sisteman jurisprudentziak funtzio legegilerik ez badu ere, iturri hau izan da transexualitatearen esparruan oinarriak finkatu dituen. Zinez, gero eta nabariagoa zen errealitate bat nolabait oinarritu beharra zegoen, eta legeri ezak Auzitegi Gorenaren partaidetza bultzatu zuen, nolabait.

Horrela, Auzitegi Gorenaren 1987ko uztailaren 2ko epaiak itzelezko eragina izan zuen. Egia da epaiak hizkuntza patologikoa erabili zuela, pertsona trans bati buruz mintzatu ahal izateko hark sexu berresleipen kirurgia jaso izana beharrezko zela ezarri baitzuen, demandatzailea emakumea izan beharrean, “emakumearen fikzioa” zela adieraziz⁶¹. Honek transexualitatearen eta genero identitatearen lehen oinarriak fikzio juridiko bati lotu bazizkion ere, segurtasun juridikoarentzat egokiena izan ez zena, epaiak aurrerapauso bat suposatu zuela ere esan beharra dago, pertsona transen sexu zein izen aldaketaren lege aintzatespena baimenduz eta babestuz.

Aurrekari hori ikusita, Auzitegi Gorenaren genero identitaterako eskubi-dea garatzen joan zen hurrengo epaietan. Lehenago azaldu legez, esku-bide horren Konstituzio oinarria, EK 10.1 artikulua, azaleratu zuen Auzitegi Gorenaren 1988ko uztailaren 15eko epaiak lehen aldiz. Horrez gain, transexualitatearen ikuskera medikua atzean utzi ez bazen ere, Auzitegi Gorenak sexu psikikoaren garrantzia azpimarratu zuen bere 1988ko martxoaren 3ko epaian. Izan ere, sexuaren beste ulerkerak batzuk ere kontuan izan behar direla ukatu gabe, osagai psikikoa funtsezkoa da pertsona baten sexua zein den zehazterakoan, norbanakoaren nortasunaren garapena atal psikiko horretan bereziki funtsatzen den heinean⁶².

⁶¹ Auzitegi Gorenaren 1987ko uztailaren 2ko epaia, 3. Z.O. Erref.: Aranzadi, RJ\1987\5045.

⁶² Auzitegi Gorenaren 1989ko martxoaren 3ko epaia, 3. Z.O. Erref.: Aranzadi, RJ\1989\1993.

Jurisprudenziak transexualitatearen gaineko ulerkera patologikoa mantentzen jarraitzen zuela frogatze aldera, aipagarria da Auzitegi Gorenaren 2002ko irailaren 6ko epaia, lehen aldiz bigarren mailako sexu ezaugarriak ezabatzeko kirurgia soilik jaso zuen pertsona trans baten kasua aztertu zuena. Auzitegiaren aburuz, errekurtsogileak sexu berresleipen kirurgiaren lehen urratsa besterik ez zuen jaso, prozesua amaitutzat emateko beste bi urrats gauzatzea beharrezkoa zelarik. Horrela, Auzitegi Gorenaren esanetan, lehenagoko epaietan sexu psikikoaren lehentasuna ezarri bazuen ere, horrek ez zuen esan nahi horretan soilik oinarrituta sexu aldaketen lege aintzatespena lor zitekeenik. Ondorioz, epaian adierazi moduan, behar-beharrezkoa zen sexu berresleipen kirurgia osoa jasotzea, Auzitegiak aintzatespen eza Konstituzioaren aurkakoa zela deklaratu ahal izateko⁶³.

Ikus daitekeenez, Auzitegi Gorena arauketa falta osotzen ahalegindu zen, pertsona transen sexu aldaketaren lege aintzatespenaren esparruan gutxieneko oinarriak finkatuz. Dena dela, finkatutako funtsak mugatuak izan ziren, ikuspegi patologiko batetik emanak, eta gutxika ezarritakoak, Auzitegiaren aurrean kasu ezberdinak agertu ahala. Hortaz, ez da harritzekoa epaileek beraiek hain beharrezkoa zen legeria eskatzea, jurisprudenziak bere funtzioa bete zezan: antolamendu juridikoa osotzea, arauak interpretatu eta aplikatuz; eta ez arauok sortzea⁶⁴.

b) *3/2007 Legea, martxoaren 15ekoa, pertsonen sexu aipamenaren erregistro zuzenketa arautzekoa*

Auzitegi Gorenaren eskaerari erantzunez, 2007. urtean 3/2007 Legea⁶⁵ aldarrikatu zen. Zioen azalpenean bertan azaldu legez, bere helburua

⁶³ Auzitegi Gorenaren 811/2002 epaia, 2002ko irailaren 6koa, 4. eta 7. Z.O. Erref.: Aranzadi, RJ\2002\7180.

⁶⁴ GÓMEZ LAPLAZA, M. C. “Transexualidad”. *Op. cit.*, 55. or.

⁶⁵ 3/2007 Legea, martxoaren 15ekoa, pertsonen sexu aipamenaren erregistro zuzenketa arautzekoa. EAOn 65. zkia., 2007ko martxoaren 16koa, 11251-11253 orr.

jaiotzako sexuarekin bat ez datorren genero identitatedun pertsonen nortasunaren garapena eta duintasuna bermatzea da. Hala, lege honek erregistroko sexu aipamenaren aldaketa-prozesuaren izaera judiziala baztertu, eta bide administratiboa proposatzen du, horren ordez.

Sexu aipamenaren zuzenketa jaso ahal izateko baldintzei dagokienez, lege honek ekarritako berrikuntza nabarmenena sexu berresleipen kirurgiaren derrigortasuna atzean uztea litzateke, jurisprudentziak ezarritako muga gaindituz. Aurrerapauso itzela izan bazen ere, legeak ez dio transexualitatearen ikuskera medikuari uko egiten. Are gehiago, 4. artikuluko betekizunek genero disforiaren diagnostikoei eta tratamendu medikuei egiten diete erreferentzia, bi-biak txosten mediku bidez frogatu behar direlarik.

Legearen izaera patologikoa eta sexu biologikoari esleitzen dion lehenetasuna argi ikus daiteke aipatutako tratamendu medikuen helburua sentitutako sexuari dagozkion ezaugarri fisikoen eskurapena dela aipatzen denean, SALAZAR BENÍTEZ⁶⁶-ek dioen moduan. Horrez gain, transexualitatearen inguruan planteatzen diren arazoentzako konponbide eskasa eskaintzen du legeak, genero identitaterako eskubidearen tratamendu integrala jaso beharrean.

Horrek kritikak jaso izan baditu ere, 3/2007 Legearen alderdi gatazkatsu eta kritikatuena, zalantza gabe, talde jakin batzuk haren ezarpen eremutik kanpo utzi izana litzateke: etorkinak eta adingabeak. Izan ere, azken hauei dagokienez, 1. artikuluan legea adin nagusiei aplikagarri dela zehazten da. Hala, nazioarteko sistemetako eta Europar Batasuneko xedapen berezi faltak adingabe transen eskubideen babesa murrizten bazuen, Estatu mailako legearen ageriko eskusioak talde honen egoera kritikoa neurrigabe areagotzen du.

⁶⁶ SALAZAR BENÍTEZ, O. “La Identidad de Género como Derecho Emergente”. *Revista de estudios políticos*. 2015, 169. zkia., 87-88 orr.

Esan bezala, legeak nortasunaren garapen askea bermatzea du helburu, erregistroko sexu aipamenaren zein izenaren zuzenketa ahalbidetuz. Hori hala bada, adingabeak ezarpen eremutik ezabatzeak euren nortasunaren garapenerako eskubidea urratuko lukeela dirudi, EKko 10.1 artikuluan jasoa, duintasunaren gain ere eragin negatiboa sorraraziz⁶⁷. BURGOS GARCÍA⁶⁸-ren ustez, urraketa hau bereziki gogorra da adingabeen kasuan, haurtzaroan zein nerabezeroan nortasunaren oinarritzko garapena gauzatzen baita.

Konponbide ezberdinak aurkitzeko saiakerak egin dira, adingabe transeñ eskubideak babesteko asmoz. Batetik, doktrinaren zati batek 3/2007 Legeak egindako bazterketa era murriztailean interpretatzea proposatu zuen, adingabe transek euren sexu aipamenaren zuzenketa eskatzeko bide administratiboa erabili ezin bazuten ere, legeak bide judiziala baztertzen ez zuela adieraziz. Epaitegiek, aldiz, bestelakoa deritzote, argudio horretan oinarrituta aurkeztutako eskaerei ezezkoa emanez⁶⁹.

Bestetik, sexu aipamena aldatzeko zailtasunak ikusita, praktikan adingabe transek izen aldaketa eskatzen dute, euren egoitzako Erregistro Zibilean, euren egoera kritikoa nolabait mugatzeko. Honen harira, aipatzekoa da iraganeko Erregistro Zibileko Legearen⁷⁰ 54. artikulua banakoaren

⁶⁷ BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, R. "Transexualidad y menor de edad". *Revista Cuadernos Civitas de Jurisprudencia Civil*. 2020, 112. zkia., 5. or.

⁶⁸ BURGOS GARCÍA, O. "El Derecho a la Identidad de Género como Derecho Fundamental en Interés del Menor". *Mujeres e Investigación. Aportaciones interdisciplinarias*. 2016ko ekaina-uztaila, 65-66 orr.

⁶⁹ Ikus, besteak beste: Huescako Lehen Instantzia eta Instrukzioko 5. Epaitegiko epaia, 2015eko urtarrilaren 5ekoa; Valentziako Probintzia Auzitegiko (Seigarren Sekzioa) 267 zkiko autoa, 2015eko azaroaren 10ekoa. Azken honek interpretazio alternatibo bat proposatu zuen, adingabe transek lege ordezkarri bidez eskaera aurkeztea ahalbidetuz.

⁷⁰ 1957ko ekainaren 8ko Legea, Erregistro Zibilari buruzkoa. EAoren 151. zkia, 1957ko ekainaren 10ekoa.

sexuaren gaineko zalantzak sorraraz zitzaketen izenak hautatzea debekatzen zuela, adingabe transen kasuak oztopatuz. Orduko arauketarekin ere, epaile gehienek adingabe transen izen aldaketak onartu ohi zituzten. Egun, onarpen horiek argiagoak dira, egungo legeak⁷¹ aipatutako baldintza ezabatu baitu.

Hori hala izanda, adingabe transek euren sexu aipamenaren zuzenketara eskatzeko duten ahalmenaren gaineko eztabaida Auzitegi Gorenera heldu zen. Auzitegiak, 3/2007 Legeko 1. artikuluko bazterketaren konstituziotasuna zalantzan jarritz⁷², 2016ko martxoaren 10eko Autoa eman zuen, konstituzio-kontrakotasun arazo bat planteatuz. Autoan jaso moduan, Auzitegi Gorenak haur eta nerabe transen egoera aintzatesten du, eurengan transexualitate eta adingabetasunetik eratorritako ezaugarriak batzen direla aitortuz, eta eurek ere oinarritzko eskubideen titular direla baieztatuz⁷³.

Hortaz, 3/2007 Legeak ekarritako adingabeen eskubideen mugaketa arrazoituta ote dagoen galdetzen du Auzitegiak (adingabeen heldutasun falta edo adingabeak bereziki babesteko beharra oinarri), horixe proportziozkoa den ere zalantzan jarritz.

4.3. Adingabe transen genero identitatearen aintzatespenerantz

Konstituzio Auzitegiaren 99/2019 epaiak, 2019ko uztailaren 18koa, ekarri zuen autoaren erantzuna.

⁷¹ 20/2011 Legea, uztailaren 21ekoa, Erregistro Zibila arautzekoa. EA Oren 175. zkia., 2011ko uztailaren 22koa.

⁷² Errekurtsogileak eskatuta, 4. artikuluko betekizunak ere konstituzio aurkakoak ote diren planteatzen da, baina geroago Konstituzio Auzitegiak eskaera honi erantzuteari uko egiten dio.

⁷³ Auzitegi Gorenaren 2016ko martxoaren 10eko autoa, 5. eta 7. Z.O. Erref.: Aranzadi, RJ\2016\1392.

3/2007 Legeko 1. artikulua adingabeen eskubideei ezarritako muga konstituzio- aurkakoa den edo ez erabakitzeke, lehenik mugapen horrek proportzionaltasun testa betetzen duen aztertu zuen Auzitegiak. Ildo horretatik, Konstituzio Auzitegiak EKko 10.1 eta 18.1 artikuluek jasotako eskubideak mugatzen direla aitortu zuen, mugaketa horren intentsitatea azpimarragarria delarik nortasunaren garapenaren kasuan, banakoaren esentzia zein duintasuna barnebiltzen baititu⁷⁴.

Hala, mugaketa horren oinarria EKko 39. artikulua jasotzen duen haurrak babesteko beharra dela argudiatzen du Konstituzio Auzitegiak, izan ere, adingabeak legeko ezarpen eremutik kanpo uzteak onura dakar finkatu gabeko transexualitate kasuetan dauden adingabeentzat. Auzitegiaren aburuz, zenbait kasutan adingabeak sexu aipamena eskatu ostean damu daitezke, euren transexualitate egoera ez baitzen benetan finkoa⁷⁵. Ironikoki, babes horren titular diren adingabe transek mugapen bat jasaten dute.

Dena dela, Auzitegiak 39. artikuluko betebeharrak ekarritako onura baztergarria dela baieztatzen du, adingabea nagusitzen joan ahala, bere transexualitate egoera zurrera bada, betiere. Ondorioz, 3/2007 Legeko 1. artikulua konstituzio-aurkakotasuna deklaritzen du Konstituzio Auzitegiak, transexualitate egoera finkoan dauden eta heldutasun nahikoa duten adingabeen eskubideak urratzen dituen heinean⁷⁶.

Hala ere, BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO⁷⁷-k dioenez, Auzitegiak egin-dako zehaztapena hutsala da, nahasgarria izateaz gain. Transexualitate egoera finkoari dagokionez, legeak berak betekizun moduan eskatzen du

⁷⁴ Konstituzio Auzitegiaren 99/2019 epaia, 2019ko uztailaren 18koa, 4. Z.O. Erref.: Aranzadi, RTC\2019\99.

⁷⁵ 7. eta 8. Z.O.

⁷⁶ 9. Z.O.

⁷⁷ BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, R. “Transexualidad y...”. *Op. cit.*, 18.-21. orr.

ezaugarri hau, orokorrean, txosten mediku bidez egiaztatu behar delarik. Hortaz, ez dirudi beharrezko adingabeen kasuan ere hori derrigorra litza-tekeela errepikatzea. Heldutasun nahikoa izateari lotuta, kontzeptu horren anbiguotasuna deigarria da, printzipioz kasuan kasu aztertu beharreko gaia delarik, Auzitegiak ez baitu adin jakinik aipatzen. Are gehiago, aurreko ezaugarriarekin gertatu legez, bere aipamena errepikakorra da, Kode Zibileko 162.2 artikulua hori jasotzen baitu, nortasunarekin lotura duten eskubideen gaineko egintzak egikaritzeko adingabeen gaitasuna zehaztean.

Era zehaztugabeen bada ere, badirudi Konstituzio Auzitegiaren epaiak adingabe batzuei behintzat euren sexu aipamenaren aldaketa eskatzeko gaitasuna opatzen diela. Hala ikus daiteke, hain zuzen, konstituzio-kontrakotasun arazoaren jatorri izan zen prozesuko Auzitegi Gorenaren 685/2019 epaian, abenduaren 17koa. Izan ere, Konstituzio Auzitegiak ezarritako irizpideak jarraituz, Auzitegi Gorenak demandatzailearen sexu aipamenaren aldaketa-eskaera onartu ahal izateko, bere heldutasun eta transexualitate egoeraren finkotasuna aztertzea beharrezkoa dela adierazi zuen⁷⁸. Hortaz, halako egitatezko zein zuzenbideko gaiak apelazioan aztertu behar direnez, Auzitegi Gorenak kasua berriz ere Probintzia Auzitegira igortzea epaitu zuen.

4.4. Pertsona transen berdintasun erreala eta eragingarrirako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko Lege Aurreproiektua

Berriki aztertutako Konstituzio Auzitegiaren epaiak egun indarrean dagoen 3/2007 Legeko ezarpen eremua zabaltzeko bidea erraztu badu ere, esan bezala, transexualitatea legeak aurreikusitakoa baino haratago doa, eta ondorioz, adingabeen genero identitaterako eskubidearen tratamendu integrala jasotzen duen arauketaren premia agerikoa da.

⁷⁸ Auzitegi Gorenaren 685/2019 epaia, abenduaren 17koa, 9. Z.O. Erref.: CENDOJ, 4217/2019.

Ildo honetatik, aipagarria da Pertsona transen berdintasun erreal eta eragingarrirako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko Lege Aurreproiektua⁷⁹, Estatu mailan onartze bidean dagoena. Zioen azalpenaren arabera, Estatuan izandako aurrekariak oinarri hartuz, LGTBI pertsonen berdintasuna bermatzea du helburu, integraltasunean funtsatutako arauketa proposatuz.

Edukiari dagokionez, lege-testuak lau titulu nagusi ditu: botere publikoen jarduketari buruzkoa, pertsona transen egoera bereziari buruzkoa, bereizkeriaren aurkako neurriei buruzkoa eta arau-hauste zein zehapenei buruzkoa. LGTBI siglen hirugarren hizkiak pertsona transak barneratzen baditu ere, jarraian II. Titulua jorratuko da, bereziki, arauketa zehatzena jasotzen duena baita.

Hasteko, I. Kapituluaren erregistroko sexu-aipamena zuzentzeko jarraitu beharreko prozesua aurreikusten da, 3/2007 Legea indargabetu eta ordeztzea baita aurreproiektuaren helburuetako bat. Egungo arauketaekin alderatuta, aurreproiektuaren kutsua guztiz despatologizatailea da, genero identitatearen determinazio askea bermatzen duelarik. Hala, genero disforiaren diagnostikoa izateko zein tratamendu medikuak jasotzeko beharra ezabatzen da⁸⁰.

Horrez gain, prozesu hori eskatzeko legitimatuen artean, adingabeak ere barneratzen dira, 37. artikuluan. Zehazki, 16 urtetik gorako pertsonen euren kabuz; eta 14 eta 16 urte bitartekoek euren lege-ordezkariren laguntzaz jardun dezaketela aurreikusten da. Zeharka, Zazpigarren

⁷⁹ Pertsona transen berdintasun erreal eta eragingarrirako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko Lege Aurreproiektua. www.igualdad.gob.es/servicios/participacion/audienciapublica/Documents/APL%20Igualdad%20Trans%20+LGTBI%20v4.pdf (Azken kontsulta 2022ko maiatzaren 9an).

⁸⁰ EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUA. *Dictamen 1/2022: Sobre el Anteproyecto de Ley para la Igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI*. 2022ko urtarrilaren 26a, 11 eta 20 orr.

*Adingabe transen babesaren antolamendu juridikoan:
aipamen berezia Euskadiko kasuari*

Azken Xedapenean, 12 eta 14 urte bitartekoen kasuan onespén judiziala ezinbestekoa dela jasotzen da. Dena dela, 2022ko apirilaren 20an, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, irizpen bidez, prozesua euren kabuz has dezaketenen adina 18 urtera igotzea adostu du, adingabe ororen kasuan judiziozko onespén eskatuz⁸¹.

Jarraitzeko, II. Kapituluak pertsona transen berdintasuna bultzatzeko gizarte politikak jasotzen ditu, zenbait ildo ezberdinez: botere publikoak, lan arloa, osasun arloa eta hezkuntza arloa. 3/2007 Legearekin konparatuta, nabarmena da esparru gehiago kontuan hartzen dituela, baina hauen arauketa azalekoa da, orokorrean, atal gehienak bizpahiru artikuluz osotuta daudelarik, askotan printzipio zehazgabeak aipatuz⁸².

Gainerako xedapenei dagokienez, III. Tituluko III. Kapituluak azpimarragarria da, adingabe transak bereziki kaltebera den talde legez kalifikatzen baititu. Zentzu horretan, 66. artikulua euren babeserako neurri bereziak zerrendatzen ditu, adingabe transen ikusgarritasuna bermatuz.

Agi denez, aurreproiektuaren helburua egokia bada ere, horrek ez du kritikatu izatea eragotzi. Alde batetik, arestian aipatu bezala, arauketa azalekoa da sarritan, agian, ESTEVE ALGUACIL eta NONELL RODRÍGUEZ⁸³-ek azaldu moduan, aurreproiektuak pertsona eta arlo mota gehiegi barneratu nahi dituelako. Bestalde, haren izaera integralak egungo lege askoren gaineko eragina dakar, beraz, eurekiko bateragarritasuna funtsezkoa da. Tamalez, ez dirudi egungo idazkerak koherentzia hori guztiz errespetatzen duenik⁸⁴.

⁸¹ BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA. *Informe al anteproyecto de ley para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI*. 2022ko apirilaren 20a, 68. or.

⁸² EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUA. *Dictamen 1/2022... Op. cit.*, 21 or.

⁸³ ESTEVE ALGUACIL, L. eta NONELL RODRÍGUEZ, A. "Análisis del Anteproyecto de Ley para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI". *Indret: Revista para el Análisis del Derecho*. 2021, 3. zkia., 289. or.

⁸⁴ Ikus EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUA. *Dictamen 1/2022... Op. cit.*, 23. or.

V. ADINGABE TRANSEN BABES JURIDIKOA AUTONOMIA ERKIDEGOETAN

5.1. Lege autonomikoen joera ezberdinak

Estatuko legeriaren hutsuneak betetzeko asmoz, legegile autonomiko ezberdinek genero identitatearen zein transexualitatearen gorabeherak beren beregi arautzen dituzten legeak aldarrikatu dituzte, urteotan zehar. Egun, 14 Autonomia Erkidegok “LGTBI lege” edo “lege trans” deritzon bat dute, gutxienez, bakoitzak bere ñabardurak izanik, baina Erkidego askoren joeren artean parekotasunak aurki daitezkeelarik.

Babestutako subjektuei dagokienez, hiru joera aurki daitezke Autonomia Erkidegoetako legeen artean. Lehenik, Erkidego batzuek LGTBI pertsonak orokorrean babesten dituzten legeak dituzte, talde horren barnean pertsona transak ere daudelarik. Horixe jazotzen da Galizia⁸⁵, Katalunia⁸⁶, Extremadura⁸⁷, Murtzia⁸⁸, Balear Uharte⁸⁹, Nafarroa⁹⁰ eta Kantabriarekin⁹¹.

⁸⁵ 2/2014 Legea, apirilaren 14koa, lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen tratu berdintasunari buruzkoa Galizian. EAOREn 127. zkia., 2014ko maiatzaren 26koa.

⁸⁶ 11/2014 Legea, urriaren 10ekoa, lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta intersexualen eskubideak bermatzekoa eta homofobia, bifobia eta transfobia ezabatzekoa. EAOREn 281. zkia., 2014ko azaroaren 20koa.

⁸⁷ 12/2015 Legea, apirilaren 8koa, lesbiana, gai, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen gizarte berdintasunari buruzkoa, eta sexu-orientazio zein genero identitateagatiko bereizkeriaren aurkako gizarte politikei buruzkoa Extremadurako Autonomia Erkidegoan. EAOREn 108 zkia., 2015eko maiatzaren 6koa.

⁸⁸ 8/2016 Legea, maiatzaren 27koa, lesbiana, gai, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen gizarte berdintasunari buruzkoa, eta sexu-orientazio zein genero identitateagatiko bereizkeriaren aurkako gizarte politikei buruzkoa Murtziako Autonomia Erkidegoan. EAOREn 153. zkia., 2016ko ekainaren 25ekoa.

⁸⁹ 8/2016 Legea, maiatzaren 30ekoa, lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen eskubideak bermatzekoa eta LGTBI fobia ezabatzekoa. EAOREn 157. zkia., 2016ko ekainaren 30ekoa.

⁹⁰ 8/2017 Foru Legea, ekainaren 18koa, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa. EAOREn 173. zkia., 2017ko uztailaren 21ekoa.

⁹¹ 8/2020 Legea, azaroaren 11koa, Lesbiana, Gai, Trans, Transgenero, Bisexual eta Intersexualen eskubideak bermatzekoa eta sexu-orientazio zein genero identitateagatiko bereizkeria ezari buruzkoa. EAOREn 322. zkia., 2020ko abenduaren 10ekoa.

Bigarren talde batekoek pertsona transak bereziki babesten dituzten legeak dituzte, orokor gabe. Hau da, hain zuzen, Euskadi⁹², Kanariar Uharte⁹³ eta Errioxaren⁹⁴ kasua.

Azken batzuetan, hots, Andaluzian⁹⁵, Madrilen⁹⁶, Valentzian⁹⁷ eta Aragoian⁹⁸, “LGTBI legea” eta “lege transa” ageri dira, bi-biak. Hauei dagokienez, aurrerantzean pertsona transak bereziki babesteko legeei egingo zaie erreferentzia, zehatzagoak dira eta.

Hala, zentzuzkoa da lege orokorren helburua bereizkeria saihestea eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzea izatea, zabalagoa, babestu nahi diren pertsonen ezaugarriak heterogeneoak direnez gero. Kontrara,

⁹² 9/2019 Legea, ekainaren 27koa, 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa aldatzekoa. EAOREn 172. zkia., 2019ko uztailaren 19koa.

⁹³ 2/2021 Legea, ekainaren 7koa, gizarte berdintasunari eta genero identitateagatiko, genero adierazpenagatiko edo sexu ezaugarriengatiko bereizkeria ezari buruzkoa. EAOREn 163. zkia., 2021eko uztailaren 9koa.

⁹⁴ 2/2022 Legea, otsailaren 23koa, pertsona transen eta euren senideen berdintasunari, genero identitate eta adierazpenaren aintzatespenari eta eskubideei buruzkoa Errioxako Autonomia Erkidegoan. EAOREn 57. zkia., 2022ko martxoaren 8koa.

⁹⁵ 2/2014 Legea, uztailaren 8koa, integrala genero identitateagatiko bereizkeria ezerako eta Andaluziako pertsona transen eskubideak aintzatesteko. EAOREn 193. zkia., 2014ko abuztuaren 9koa.

⁹⁶ 2/2016 Legea, martxoaren 29koa, Genero Identitate eta Adierazpenari, Gizarte Berdintasunari eta Bereizkeria Ezari buruzkoa Madrilgo Autonomia Erkidegoan. EAOREn 169. zkia., 2016ko uztailaren 14koa.

⁹⁷ 8/2017 Legea, apirilaren 7koa, integrala genero identitate eta adierazpenaren aintzatespenerako Valentziako Autonomia Erkidegoan. EAOREn 112. zkia., 2017ko maiatzaren 11koa.

⁹⁸ 4/2018 Legea, apirilaren 19koa, Genero Identitate eta Adierazpenari, Gizarte Berdintasunari eta Bereizkeria Ezari buruzkoa Aragoiko Autonomia Erkidegoan. EAOREn 131. zkia., 2018ko maiatzaren 30ekoa.

lege trans bereziek genero autodeterminaziorako eskubidea bermatzea aipatzen dute zio moduan, batzuek beren beregi (Andaluzia, 1. artikulua; Errioxa, 1. artikulua; Euskadi, 1. eta 3. artikulua; Kanariar Uharteak, 1.1 artikulua; eta Valentzia, 1.1 artikulua) eta besteek zeharka (Aragoi, 3.1 artikulua; eta Madril, 3. artikulua).

Esan beharra dago, lege orokorren helburua zabala izateak ez duela esan nahi horietan genero autodeterminazio kontzeptua aipatzen ez denik. Genero autodeterminazioak norbanakoak bere genero identitatearen zein den ezartzeko eskubideari egiten dio erreferentzia. Horrela, Kataluniako 11/2014 Legea eta Galiziako 2/2014 Legea kenduta, gainerako lege autonomikoen ideia hau babesten dute.

Ildo horretatik, genero autodeterminazioaren definizioa oinarri, eskubide hau bermatzen duten lege guztiek, orokor zein zehatzek, hizkuntza eta ulkeren patologikoa atzean uztearen alde egin dute, legearen babespean egoteko txosten medikuen beharrik ez dagoela argituz. Argi ikus daiteke, batik bat, Andaluziako 2/2014 Legeko 9. artikuluan, esparru administratiboan pertsona transei inolako dokumentazio medikurik eskatu ezin zaiela zehaztuz. Kataluniako 11/2014 Legeak ere txosten medikuen beharra beren beregi baztertzen du, Galiziako 2/2014 Legea gainerakoaren joeratik kanpo geratzen den bakarra delarik.

Adingabeen babesari dagokionez, legeek bi joera nagusi azaleratzen dituzte. Lehen taldean, beste behin ere, Galiziako 2/2014 Legea gainerakoetatik desberdintzen da. Izan ere, bere 2. artikuluan araututako ezarpen eremuak Galiziako lurraldean dauden pertsona guztiak barnebiltzen baditu ere, legeak ez dakar adingabeen inolako aipamen berezirik, euren egoera bakanari ez-ikusirik eginez.

Bigarren joeraren barneko legeek, noski, adingabeen aipamena jasotzen dute. Autonomia Erkidego batzuen kasuan, ezarpen eremuak berak beren beregi luzatzen die aplikazioa adingabeen (Aragoi, 2.3 artikulua;

Errioxa, 5.3 artikulua; Extremadura, 2.3 artikulua; Kanariar Uharteak, 3.3 artikulua; Madril, 1.3 artikulua; Murtzia, 2.3 artikulua; eta Nafarroa, 3.3 artikulua), ondoren adingabe transen egoera berezia bestelako artikuluetan ere aurreikusi eta arautuz. Azken batzuek, ezarpen eremuak lurraldean dauden pertsona guztiei erreferentzia orokor bat egiten badie ere, legean zehar adingabe transei bereziki ezargarri zaizkien xedapenak jasotzen dituzte, osasun edota hezkuntza arloari begira, besteak beste (Andaluzia, Balear Uharteak, Euskadi, Kantabria, Katalunia eta Valentzia).

Azkenik, Autonomia Erkidegoetako legeak, orokorrean, integraltasunaren erakusgarri dira, transexualitatearen eta genero identitatearen konplexutasuna aintzatesten dutelarik, bizitzaren esparru anitz arautuz. Zinez, gehienek arlo ugari aurreikusten dituzte: administratiboa, osasunekoa, hezkuntzakoa, gizartekoa, lanekoa, familiakoa, gaztaro eta zahartzarokoa, aisialdi, kirol eta kulturakoa... Hala ere, integraltasun hori murriztagoa da Andaluziako 2/2014 Legean (administratiboa, I. Kapituluari; osasunekoa, II. Kapituluari; lanekoa, III. Kapituluari; hezkuntzakoa IV. Kapituluari eta gizarte arretakoa, V. Kapituluari) eta Euskadiko 9/2019 Legean (administratiboa, 7 artikuluan; osasunekoa, III. Kapituluari; lanekoa IV. Kapituluari; eta hezkuntzakoa, V. Kapituluari).

5.2. Euskadiko kasua: oinarrietatik etorkizunerantz

Transexualitatearen arauketa integrala aldarrikatzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoa aitzindari izan zen, Nafarroaren ostean, 14/2012 Legearen⁹⁹ eskutik. Legeko zioen azalpenean azaleratu gisa, euskal legegileak Estatu mailan onetsitako 3/2007 Legea beharrezkotzat jo zuen, haratago joateko premia ere aitortuz. Horrela, xedapenen izaera integrala suma daiteke legearen helburuan, 1. artikuluan, hori pertsona

⁹⁹ 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. EA Oren 172. zkia., 2012ko uztailaren 19koa.

transek arreta integral eta egokitua jasotzea, eta eurei babesa eskaintzea delarik.

Hala bada, duela hamarkada bateko lege hau genero identitaterako eskubidearen oinarriak finkatzen hasi zen. Hasteko, genero identitate arrazoizko bereizkeriaren existentzia berariaz agerian uzten zuen legeak, bai zioen azalpenean, baita 5. artikuluan ere, “transfobia” hitzaz baliatuz.

Bestalde, zioen azalpenean, legeak pertsona transen ikuskera patologizatzailea atzean utzi nahi zuela ikus zitekeen, izan ere, testua jarraituz, pertsona transek “ez dute laguntza eskatzen patologia edo nahasteren bat dutelako”. Zentzu honetan, zioen azalpenak sexu berresleipen kirurgiaren garrantzi erlatiboa aipatzen zuen, kasu askotan beste alderdi batzuek lehentasuna dutela azalduz.

Nolanahi ere, 3. artikuluko pertsona transen definizioak patologizazioaren aurkako joera hori guztiz zapuztu zuen. Bertan, banakoa pertsona trans kontsideratzeko, hiru aukera aurkezten ziren: a) 3/2007 Legearen arabera erregistroko sexu aipamena zuzendu izana; b) Oraindik aipamen horren zuzenketa izan gabe, zuzentzen aritzea; edo c) Aurreko kasuetatik kanpo, txosten mediku edo psikologiko bidez nortasun-nahasmendu eza, eta genero identitatea eta sexu biologikoa bat ez datozela frogatzea. Argi ikus daitekeenez, 3/2007 Legeko betekizunak gogoratuz, eta lege horri baldintzatuta ez dagoen aukerari erreparatuz, edozein kasutan transexualitatearen egiaztapena, eta beraz, 14/2012 Legeko eskubideen titulartasuna, txosten mediku edo psikologikoei lotuta zegoen, oraindik ulerkera patologikoaren arrastoak ikusgarri zirelarik.

Horregatik, patologizazio eza lortu nahian, 2019. urtean, 9/2019 Legea aldarrikatu zen Euskadin. Lege-testu berri honek, egun indarrean dagoena, 14/2012 Legeko 3. artikulua eraldatu du, transexualitatea genero autodeterminazioari lotuz, ezarpen eremuan sartzeak txosten medikuen beharrik suposa ez dezan.

Gauzak horrela, adingabe transen inklusioak ez du inolako kontraesanik jasaten, izan ere, orain pertsona transei ez zaie inolaz ere 3/2007 Legeko betekizunik eskatzen, Euskadiko legeak aitortutako babesaren titular izateko. Horrela, 2. artikuluan aurreikusitako ezarpen eremuak Euskadin bizi diren pertsona trans guztiak biltzen ditu, bertan adingabeak sartzeko eragozpenik ez dagoelarik.

Legeak arlo desberdinak arautzen ditu, denak adingabe transei ezargarri zaizkielarik¹⁰⁰: gizarte politika, II. Kapituluak; osasuna, III. Kapituluak; lana, IV. Kapituluak; eta hezkuntza, V. Kapituluak.

Gizarte politikarekin hasiz, 4. artikulua euskal administrazioek duten betebeharrak ezartzen du, norbanakoaren genero identitatea errespetatzeari begira. Jarraiki, 5. artikulua transfobiaren aurkako neurri zehatzei buruz mintzo da. Esan beharra dago, atal honetan Kapitulu propiorik ez duten arloei erreferentzia orokor bat egiten zaiela, hala nola, komunikazioa (5.e) artikulua) eta kirola (5.h) artikulua). Ondoren, 6. artikulua pertsona transentzako zein euren senide edo hurbilekoentzako laguntza zerbitzuak aurreikusten ditu. Adingabe transei dagokienez, bereziki garrantzitsua da 7. artikulua, pertsona transek agiri administratiboetan sexu eta izen aipamen egokia izatea bermatzen baitu, oraindik sexu berresleipen prozesua bukatu ez badute ere. Honek adingabe trans euskaldunen eskubideak bereziki bermatzen ditu, Estatu mailako legeak ekarritako segurtasun juridiko falta gaindituz, izan ere, adingabeek ere agiri egokiak izango dituztela ziurtatzen du, aipamen desegokiak dakartzaten egoera latz eta bereizkeria kasuak leunduz.

Osasunarekin jarraituz, 8. artikulua Osakidetzaren doako zerbitzuen barnean diagnostikoak, hormona tratamenduak, esku hartze kirurgiko-plastikoak eta sentitutako sexuaren aurkako gorputz garapenak geldia-

¹⁰⁰ Lan arloa 16 urtetik gorako adingabeei soilik aplikatu dakieke, Langileen Estatutuko 6.1 artikuluko mugarekin bat.

razteko bestelako tratamenduak sartuko direla ziurtatzen du. Horrez gain, xedapenaren bidez transexualitate arloan erreferentziazko unitate baten ezarpena bermatzen da, 9. artikuluan gida kliniko baten ezarpenerako jarraibideak jasotzen direlarik. Gainera, 10. artikulua pertsona transak gainerako hiritarrek dituzten osasun arloko eskubideen titular direla zehazteaz gain, euri bereziki aplikagarri zaizkien eskubideak aipatzen ditu, euren genero identitatearen araberako tratua jasotzekoa, esaterako. Adingabe transei hurreratuta, 11. artikulua funtsezkoa da, diagnostiko zein tratamendu medikua jasotzeko eskubidea dutela azpimarratuz, azken hauen artean hormonalak nabarmenduz. Kapituluko azken artikuluek, bestalde, estatistika eta osasun arloko profesionalen buruzko xedapenak jasotzen dituzte.

Lan arloko arauketa artikulua bitan laburbiltzen da. 14. artikulua bereizkeria ezari buruzko printzipioa bermatzen du, eta 15. artikulua, bere aldetik, pertsona transen kontratazioa bultzatzeko politiken ezarpenari buruz mintzo da. Ikus daitekeenez, arlo honi dagokion arauketa eskas eta orokorregia da, gainerako kapituluetaoekin alderatuz. Hori hala izanda, aipatzekoa da esparru hau adingabe transen zati bati soilik ezargarri zaiola, 16 urtetik beherakoen lana debekatuta baitago Espainian.

Bukatzeko, hezkuntza arloan, 16. eta 17. artikuluen bidez transexualitate eta genero identitatea hezkuntza, sentsibilizazio eta trebakuntza programen barruan garatzeko betebeharrak ezartzen du legeak. Azkenik, 18. artikulua garrantzi berezia du adingabe transen eskubideei dagokienez, izan ere, eskolako langile eta irakasleez gain, euri ere genero identitateगतiko bereizkeria, gizarte bazterkeria eta indarkeriarekiko babesa eskaintzen zaie, hezkuntza esparruan.

Ondorioz, jatorrizko legearen hizkuntza eta baldintza patologizatzaileak baztertuz, egungo 9/2019 Legeak zenbait arlotan benetako arauketa integrala opatzen die pertsona transei, genero autodeterminazioan funtsatuta, eta adingabe transen ezaugarri bereziak kontuan izanez.

Halaber, egia da ez dituela gizarte bizitzako arlo guztiak aurreikus-
ten, eta esparru batzuetan, lanekoan esaterako, arauketa murriztegia dela.
Arrazoi hauengatik, hain zuzen, lege proposamen berri bat aurkeztu da
Euskadin, 14/2012 Legea beste behin eraldatzeko xedez¹⁰¹, 2022ko mar-
txoaren 8an Eusko Jaurlaritzaren onespena jaso duelarik¹⁰².

Oraingoan, eraldaketa goitik beherakoa izatea da ideia, xedapenak
guztiz aldatuz. Dakartzan berrikuntzen artean, hurrengoak aipatzea be-
harrezko da. Lehenik, esparru berriak arautzen dituela nabarmentzekoa
da, lehendik zeudenei familia arloa, IV. Kapituluan; kultura, aisialdi eta
kirol arloa, VII. Kapituluan; eta segurtasun, justizia eta larrialdi arloa, VIII.
Kapituluan, gehituz.

Bigarrenez, jadanik araututako arloen arauketa zabaltzen da, xedapen
gehiago aurreikusiz eta jatorrizkoak moldatuz, legeak eskainitako babe-
saren integritasuna indartzeko.

Azkenik, adingabe transen arazo eta ezaugarri bakanek arreta berezia
jasotzen dute lege proposamen honetan. Batetik, administrazioei begi-
ra, adingabeen entzunak izateko eskubidea ezartzen da, 4.2 artikuluan,
egungo idazkeraren gehikuntza moduan. Bestetik, transfobiaren aurkako
neurriak jasotzen dituen 5. artikulua ere aipatzen ditu, pertsona transen
barruan kolektibo ahul moduan sailkatuz. Osasun arloan adingabe tran-

¹⁰¹ Lege-proposamena, transexualak genero identitateagatik ez baztertzeari eta haien es-
kubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legea bigarren aldiz aldatzekoa.
<https://euskolegebiltzarra.eaj-pnv.eus/eu/agiriak/20372/lege-proposamena-transexualak-genero-identitateaga> (Azken kontsulta 2022ko maiatzaren 10ean).

¹⁰² EUSKO JAURLARITZA. “Transexualak genero identitateagatik ez baztertzeari eta haien
eskubideak aitortzeari buruzko lege proposamenari argi berdea eman dio Jaurlaritzak”.
<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/albiste/2022/transexualak-genero-identitateagatik-ez-baztertzeari-eta-haien-eskubideak-aitortzeari-buruzko-lege-proposamenari-argi-berdea-eman-dio-jaurlaritzak-gobernu-bilera-2022-3-8/> (Azken kontsulta 2022ko maiatzaren 9an).

sek jadanik zeukaten erreferentzia osotzen da, xedapen gehiago sartuz, 9., 10.bis, 11. eta 13.bis artikuluetan. Familia arlo berriak ere adingabeiei ezargarri zaizkien artikulua jasotzen ditu, 13. quater eta 13. quinques, zehazki. Hezkuntza esparruan 18. artikulua aipa daiteke, adingabeen kasu berezia jorratzen baitu.

Hortaz, egungo 9/2019 Legeak integritasunera bidean aurrerapauso ikaragarria suposatu bazuen ere, garbi dago oraintsu aztertutako lege proposamenak jarduketa esparrua nabarmen zabaltzen duela, funtsezkoak diren bizitza esparruak gehituz eta adingabe transei babes pertsonalizuatuago bat luzatuz.

VI. DE LEGE FERENDA KO PROPOSAMENAK

Egungo arauketa azertu ostean, hura indartzeko bidean eman beharreko urratsei erreparatzea egoki litzateke. Horrela, proposamen nagusia Estatu mailako arauketa sendotzea litzateke.

Lege autonomikoek legegintza lan paregabea egin badute ere, emaitza ez da berdina izan Autonomia Erkidego guztietan: batzuek ez dute legerik, eta badutenen artean ere ezberdintasunak daude lurraldez lurralde, arestian ikusi legez. Horrek, noski, segurtasun juridiko faltan murgiltzen ditu espainiar Estatuko pertsona transak¹⁰³, orokorrean, eta adingabeak, bereziki, Estatu mailako legearen bazterketa eta konponbide jurisprudentzialaren anbiguotasuna ikusita.

3/2007 Legeak aurkeztutako pertsona transen egoeraren ulerkerak mugatua kontuan izanda, gainerako kritikez gain, egokiena benetan integratzen den lege bat aldarrikatzea litzateke, hark egungo legeak dituen gabeziak gaindi ditzan.

¹⁰³ BURGOS GARCÍA, O. "El Derecho a...". *Op. cit.*, 74.-75. orr.

Hartara, Autonomia Erkidego gehienetan jazo moduan, legeak genero autodeterminazioa eta patologizazio eza izan beharko lituzke oinarri, 3/2007 Legeko 4. artikuluko txosten medikuen beharra ezabatuz, genero identitaterako eskubidea era egokian bermatzeko. Gainera, gizarte bizi-tzako esparru ezberdinak arautu beharko lituzke, euren artean administratiboa, osasunekoa, lanekoa, hezkuntzakoa, familiakoa zein kultura, aisialdi eta kirolekoa bereziki garatuz. Are gehiago, ezarpen eremuan adingabeak beren beregi biltzeaz gain, euren egoera berezitik eratorritako bereizkeriak saihesteko xedapen zehatzak jaso beharko lituzke, araututako esparru desberdinei begira.

Zentzu horretan, arestian aztertutako Pertsona transen berdintasun erreal eta eragingarrirako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko Lege Aurreproiektua aurrerapauso legez ikus daiteke, baina haren xedapenen sakontasuna indartzea funtsezkoa da, kontraesanak ere ezabatuz.

Estatu mailan azaldutako ezaugarriak dituen legea onestea errazteko asmoz, giza eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenek genero identitatea bereizkeria arrazoi legez jasotzea komenigarria litzateke, hasteko.

Horrez gain, esparru honetan hain funtsezko izan diren Yogyakartako Printzipioak *soft law* delakotik atera eta benetako Nazioarteko Hitzarmen bilakatzea onuragarria izango litzateke. Izan ere, Estatuentzat lotesle balira, hauen legeriak printzipiook errespetatu beharko lituzke. Hala, 3. printzipioak genero autodeterminazioa bermatzen duenez, ikuskera patologikoa baztertuz, testua Nazioarteko Hitzarmen balitz, hari atxikitako Estatuak halako legeria onestera bultzatuko lituzke.

VII. ONDORIOAK

LEHENA. Genero identitaterako eskubideak ez du euskarri den Hitzar-menik nazioartean, hots, ez dago pertsona transen eskubide bereziak bermatzen dituen lege-tresnarik. Are gehiago, giza eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmentetan bereizkeria eza bermatzen duten xedapenek ez dakarte genero identitateagatiko arazoiaeren berariazko erreferentziarik. Nazioarte eta Europako Kontseiluko konponbidea, beraz, *soft law* delakoan eta GEEAren jurisprudentzian funtsatzen da. Tresna horiek, Yogyakartako Printzipioak nabarmenduz, transexualitatearen eta genero identitatearen ulerkeria aske eta despatologizatzailea bermatzen duen Nazioarteko Zuzenbide baterako bidea finkatu dute. Hala ere, gaiari buruzko instrumentu lotesle espezifikoko faltak genero identitateak baldintzatzen dituen bizitzako arlo desberdinak sakon arautzea galarazi du.

BIGARRENA. Europar Batasun mailan, EBJAren jurisprudentziak garatu du genero identitaterako eskubidearen babesa. Hala, Auzitegiak bere aurrera joandako pertsonen egoerak aztertu ditu, kasuan kasu. Honek Europar Batasuneko genero identitaterako eskubidearen babespeko subjektuak zeintzuk diren zehazteko zailtasunak planteatu ditu, izan ere, aztertutako kasuetako protagonista guztiek sexu berresleipen kirurgia jaso izanak EBJAk hizkuntza patologizatzailea erabiltzea eragin du. Dena dela, eskubidea orokortzearen alde egiten du doktrinak, EBJAk pertsona transen definitziorik ez ezartzeak kontzeptuaren malgutasuna dakarrela argudiatuz.

KIRUGARRENA. Adingabe transen egoera bereziki kritikoa da, bereizkeria arrazoi bik subjektu beraren gain eragina baitute. Ildo horretatik, Europa mailako garapen jurisprudentzialaren ondorioz, adingabe transak Auzitegietara ez joateak euren kasuak ikusezin bilakatzea eragin du. Nazioarteko Hitzarmentek ere ez dakarte genero identitatea eta adingabetasuna batera kontsideratzen dituzten xedapenik. Hortaz, adingabe transak dagoeneko eskasa den arauketa orokorrean murgilduta daude, euren berezitasunei ez-ikusi egiten zaielarik.

*Adingabe transen babesa espainiar antolamendu juridikoan:
aipamen berezia Euskadiko kasuari*

LAUGARRENA. Espainiar Estatuan, jurisprudentziak bere funtzio osatzailea gainditu eta legegile lanak egin behar izan zituen, transexualitatearen lege aurreikuspen falta gainditzeko. Horrela, Auzitegi Gorenaren epaien arabera, genero identitaterako eskubideak EKko 10.1 artikuluko nortasunaren garapen askean du bere Konstituzio oinarria, eta horretan funtsatuta, pertsona transen erregistroko sexu aipamen zein izen aldaketa onartzen zen, baina pertsona transak sentitutako sexura egokitzea fikzio juridiko gisa tratatuz. Ulerkera patologizatzailea gainditzeko asmoz, 3/2007 Legea aldarrikatu zen, gabezia handiak ekarri zituen: integrala izan ordez bizitzako arlo bakarra arautzea, patologizazioa guztiz atzean ez uztea eta adingabeak baztertzea. Konstituzio Auzitegia bazterketa honen konstituziotasunari buruz mintzatu bada ere, ezarpen eremuaren konstituzio-kontrakotasuna “heldutasun nahikodun” eta “transexualitate egogerra finkoan” dauden adingabeei soilik lotzearen anbiguotasunak itzelezko segurtasun juridiko falta dakar adingabe transentzat, erregistroko sexu aipamena alda dezaketen edo ez jakite aldera.

BOSGARRENA. Hamalau Autonomia Erkidegok euren gain hartu dute Estatuko legearen mugatutasuna osotzea. Joera ezberdinak badaude ere, denek integraltasunera hurbiltzen diren legeak aldarrikatu dituzte, bizitzako arlo desberdinak jorratuz. Euren artean, Euskadiko legeak bilakaera garrantzitsua jasan du. Lehenik 2012an onetsi zen idazkeran, ikuskera patologikoa nabarmentzen zen oraindik, 3/2007 Legeko hizkuntza errepikatuz. 2019ko eraldaketak gainditu zuen oztopo hori, genero autodeterminazioa oinarri hartuz. Egun, 9/2019 Legeak transexualitatearen konplexutasuna aintzatesten du, bizitzako esparru anitz arautuz. Adingabeei dagokienez, ezarpen eremuan barneratzearekin batera, euren ezaugarri bereziak kontuan hartzen dira xedapenetan. Dena dela, lege proposamen berri batek integraltasuna eta adingabeen aintzatespena sendotzeko helburua du.

SEIGARRENA. Beharrezko da Estatu mailako legearen gabeziak onartu ostean, lege trans integral bat aldarrikatzeko lanak egitea. Autonomia Erkidegoetan, Euskadi barne, arauketa egokia badago ere, nahitaezkoa da oinarriak ezarriko dituen eta lurraldeen egoera berdinduko duen Estatuko legea onestea, atzean geratu diren Erkidegoak babestu eta orokorrean segurtasun juridikoa bermatzeko. Lan honetan, berebizikoa da genero autodeterminazioa oinarri hartzea, despatologizaziorantz jotzea eta adingabeen egoera berezia espresuki kontuan izatea, hauexek ezarpen eremura bilduz eta euren berezitasunak jorratuko dituzten xedapenak barneratuz, bizitzako arlo ezberdinetan.

VII. BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK

7.1. Bibliografia

ÁLVAREZ SUÁREZ, L. “Patologización e Invisibilización de la identidad de género en España: ¿qué debemos aprender de la legislación argentina?”. *Opinión Jurídica*. 2020ko uztaila-abendua, 19. lib., 39. zkia.

BELL, M. “Gender Identity and Sexual Orientation: Alternative Pathways in EU Equality Law”. *The American Journal of Comparative Law*. 2012ko urtarrila, 60. lib.

BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, R. “Transexualidad y menor de edad”. *Revista Cuadernos Civitas de Jurisprudencia Civil*. 2020, 112. zkia.

BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA. *Informe al anteproyecto de ley para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI*. 2022ko apirilaren 20a.

BURGOS GARCÍA, O. “El Derecho a la Identidad de Género como Derecho Fundamental en Interés del Menor”. *Mujeres e Investigación. Aportaciones interdisciplinarias*. 2016ko ekaina-uztaila.

*Adingabe transen babesa espainiar antolamendu juridikoan:
aipamen berezia Euskadiko kasuari*

DÍAZ LAFUENTE, J. “La Protección de los Derechos Fundamentales frente a la Discriminación por Motivos de Orientación Sexual e Identidad de Género en la Unión Europea”. *Revista General de Derecho Constitucional*. 2013, 17. zkia.

EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUA. *Dictamen 1/2022: Sobre el Anteproyecto de Ley para la Igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI*. 2022ko urtarrilaren 26a.

EUROPAKO KONTSEILUKO PARLAMENTUKO ASANBLADA. *Resolution 2048 - Discrimination against transgender people in Europe*. 2015eko apirilak 22, 2048 (2015).

EUSKO JAURLARITZA. “Transexualak genero identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko lege proposamenari argi berdea eman dio Jaurlaritzak”. <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/-/albiste/2022/transexualak-genero-identitateagatik-etz-baztertzeari-eta-haien-eskubideak-aitortzeari-buruzko-lege-proposamenari-argi-berdea-eman-dio-jaurларitza-gobernu-bilera-2022-3-8/> (Azken kontsulta 2022ko maiatzaren 9an).

ESTEVE ALGUACIL, L. eta NONELL RODRÍGUEZ, A. “Análisis del Anteproyecto de Ley para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI”. *Indret: Revista para el Análisis del Derecho*. 2021, 3. zkia.

GÓMEZ LAPLAZA, M. C. “Transexualidad”. *Revista Doctrinal Aranzadi Civil-Mercantil*. 2004, 1. zkia.

HAMMARBERG, T. “Derechos Humanos e Identidad de Género”. *TvT argitalpen-saila*. 2010eko urtarrila, 1. lib.

JURISTEN NAZIOARTEKO BATZORDEA. *Principios de Yogyakarta: Principios sobre la aplicación de la legislación internacional de derechos humanos en relación con la orientación sexual y la identidad de género*. Yogyakarta-ko Printzipioen webgunea: yogyakarta-principles.org/wp-content/uploads/2016/08/principles_sp.pdf (Azken kontsulta 2022ko apirilaren 5ean).

LENGUA PARRA, A. “La trans-formación del Derecho: La evolución del Derecho Internacional de los Derechos Humanos para proteger la identidad de género de las personas trans”. *Ius et veritas*. 2019ko azaroa, 59. zkia.

MALDONADO, J. “El Reconocimiento del Derecho a la Identidad Sexual de los Menores Transexuales en los Ámbitos Registral, Educativo y Sanitario”. *RJUAM*. 2007, 36. zkia.

MARTÍNEZ DE PISÓN, J. “Sexo, Género y Derechos: Del ‘Derecho a la Orientación Sexual y la Identidad de Género’ al ‘Derecho a la Libre Determinación del Género’”. *Derechos y libertades*. 2022ko urtarrila, 46. zkia.

MERINO SANCHO, V. “Una Revisión de la Jurisprudencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos sobre la Intimidación Sexual y la Autonomía Individual”. *Derechos y libertades*. 2018ko urtarrila, 38. zenbakia.

NAZIO BATUEN ESKUBIDE EKONOMIKO, SOZIAL ETA KULTURALAREN BATZORDEA. *Observación general N° 20: La no discriminación y los derechos económicos, sociales y culturales (artículo 2, párrafo 2 del Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales)*. 2009ko uztailak 2, E/C.12/GC/20.

NBGEB. *Derechos humanos, orientación sexual e identidad de género: Resolución aprobada por el Consejo de Derechos*. 2011ko uztailak 14, A/HRC/RES/17/19.

NBGEB. *Observación general N° 35: Artículo 9 (Libertad y seguridad personales)*. 2014ko abenduak 16, CCPR/C/GC/35.

NAZIO BATUEN GIZA ESKUBIDEETARAKO GOI MANDATARIAREN BULEGOA. *Informe sobre Leyes y prácticas discriminatorias y actos de violencia cometidos contra personas por su orientación sexual e identidad de género*. Geneva: Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoa, 2011ko azaroak 17, A/HRC/19/41.

NAZIO BATUEN HAURREN ESKUBIDEEN BATZORDEA. *Observación general n° 15 (2013) sobre el derecho del niño al disfrute del más alto nivel posible de salud (artículo 24)*. 2013ko apirilak 17, CRC/C/GC/15.

OSELLA, S. “The Court of Justice and gender recognition: A possibility for an expansive interpretation?” *Women’s Studies International Forum*. 2021eko ekaina, 87. lib.

SALAZAR BENÍTEZ, O. “La Identidad de Género como Derecho Emergente”. *Revista de estudios políticos*. 2015, 169. zkia.

7.2. Legeria

a) Nazioarteko legeria

Nazio Batuen Gutuna, San Frantziskon sinatua 1945eko ekainaren 26an.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, Parisen sinatua 1948ko abenduaren 10ean.

Europako Kontseiluko Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Europako Hitzarmena, Erroman sinatua 1950eko azaroaren 4an. Espainiaren atxikitze tresna, 1979ko urriaren 10ekoa, EAOn 243. zkia.

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, New Yorke sinatua 1966ko abenduaren 19an. Espainiaren atxikitze tresna, 1977ko apirilaren 30ekoa, EBAOn 103. zkia.

Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, New Yorke sinatua 1966ko abenduaren 19an. Espainiaren atxikitze tresna, 1977ko apirilaren 30ekoa, EBAOn 103. zkia.

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena, New Yorke sinatua 1989ko azaroaren 20an. Espainiaren atxikitze tresna, 1990eko abenduaren 31koa, EAOn 313. zkia.

b) Europako legeria

Europar Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna, 2000ko abenduaren 7koa, EBAOn C 364/5 zkia.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 76/207/EEE Zuzentaraua, 1976ko otsailaren 9koa, Enplegu, formazio, promozio eta lan baldintza gaitan gizon eta emakumeen arteko tratu berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa, EBAOn L039 zkia.

Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/54/EE Zuzentaraua, 2006ko uztailaren 5ekoa, Enplegu eta okupazio gaietan gizon eta emakumeen arteko tratu berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa (Testu Bategina), EBAOren L204 zkia.

c) *Espainiako legeria*

c.1.) Estatu mailako legeria

Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 29koa, EAO 311. zkia.

1957ko ekainaren 8ko Legea, Erregistro Zibilar buruzkoa. EAOren 151. zkia, 1957ko ekainaren 10ekoa.

3/2007 Legea, martxoaren 15ekoa, pertsonen sexu aipamenaren erregistro zuzenketa arautzekoa. EAOren 65. zkia., 2007ko martxoaren 16koa, 11251-11253 orr.

20/2011 Legea, uztailaren 21ekoa, Erregistro Zibila arautzekoa. EAOren 175. zkia., 2011ko uztailaren 22koa.

Pertsona transen berdintasun erreal eta eragingarrirako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko Lege Aurreproiektua. www.igualdad.gob.es/servicios/participacion/audienciapublica/Documents/APL%20Igualdad%20Trans%20+LGTBI%20v4.pdf (Azken kontsulta 2022ko maiatzaren 9an).

c.2.) Autonomia Erkidegoetako legeria

14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateगतik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. EAOren 172. zkia., 2012ko uztailaren 19koa.

2/2014 Legea, apirilaren 14koa, lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen tratu berdintasunari buruzkoa Galizian. EAOren 127. zkia., 2014ko maiatzaren 26koa.

2/2014 Legea, uztailaren 8koa, integrala genero identitateagatiko bereizkeria ezerako eta Andaluziako pertsona transen eskubideak aintzatesteko. EAOn 193. zkia., 2014ko abuztuaren 9koa.

11/2014 Legea, urriaren 10ekoa, lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta intersexualen eskubideak bermatzekoa eta homofobia, bifobia eta transfobia ezabatuzkoa. EAOn 281. zkia., 2014ko azaroaren 20koa.

12/2015 Legea, apirilaren 8koa, lesbiana, gai, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen gizarte berdintasunari buruzkoa, eta sexu-orientazio zein genero identitateagatiko bereizkeriaren aurkako gizarte politikei buruzkoa Extremadurako Autonomia Erkidegoan. EAOn 108 zkia., 2015eko maiatzaren 6koa.

2/2016 Legea, martxoaren 29koa, Genero Identitate eta Adierazpenari, Gizarte Berdintasunari eta Bereizkeria Ezari buruzkoa Madrilgo Autonomia Erkidegoan. EAOn 169. zkia., 2016ko uztailaren 14koa.

8/2016 Legea, maiatzaren 27koa, lesbiana, gai, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen gizarte berdintasunari buruzkoa, eta sexu-orientazio zein genero identitateagatiko bereizkeriaren aurkako gizarte politikei buruzkoa Murziako Autonomia Erkidegoan. EAOn 153. zkia., 2016ko ekainaren 25koa.

8/2016 Legea, maiatzaren 30ekoa, lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen eskubideak bermatzekoa eta LGTBI fobia ezabatuzkoa. EAOn 157. zkia., 2016ko ekainaren 30ekoa.

8/2017 Legea, apirilaren 7koa, integrala genero identitate eta adierazpenaren aintzatespenerako Valentziako Autonomia Erkidegoan. EAOn 112. zkia., 2017ko maiatzaren 11koa.

8/2017 Foru Legea, ekainaren 18koa, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa. EAOn 173. zkia., 2017ko uztailaren 21ekoa.

4/2018 Legea, apirilaren 19koa, Genero Identitate eta Adierazpenari, Gizarte Berdintasunari eta Bereizkeria Ezari buruzkoa Aragoiko Autonomia Erkidegoan. EAOn 131. zkia., 2018ko maiatzaren 30ekoa.

9/2019 Legea, ekainaren 27koa, 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa aldatzekoa. EAOn 172. zkia., 2019ko uztailaren 19koa.

8/2020 Legea, azaroaren 11koa, Lesbiana, Gai, Trans, Transgenero, Bisexual eta Intersexualen eskubideak bermatzekoa eta sexu-orientazio zein genero identitateagatik bereizkeria ezari buruzkoa. EAOn 322. zkia., 2020ko abenduaren 10ekoa.

2/2021 Legea, ekainaren 7koa, gizarte berdintasunari eta genero identitateagatik, genero adierazpenagatik edo sexu ezaugarriengatik bereizkeria ezari buruzkoa. EAOn 163. zkia., 2021eko uztailaren 9koa.

2/2022 Legea, otsailaren 23koa, pertsona transen eta euren senideen berdintasunari, genero identitate eta adierazpenaren aintzatespenari eta eskubideei buruzkoa Errioxako Autonomia Erkidegoan. EAOn 57. zkia., 2022ko martxoaren 8koa.

Lege-proposamena, transexualak genero identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legea bigarren aldiz aldatzekoa. <https://euskolegebiltzarra.eaj-pnv.eus/eu/agiriak/20372/lege-proposamena-transexualak-genero-identitateaga> (Azken kontsulta 2022ko maiatzaren 10ean).

7.3. Jurisprudentzia

a) *Europako jurisprudentzia*

a.1.) GEEAren jurisprudentzia

GEEAren 9532/81 epaia, 1986ko urriaren 17koa, Rees Erresuma Batuaren kontra.

GEEAren 10843/84 epaia, 1990eko irailaren 27koa, Cossey Erresuma Batuaren kontra.

*Adingabe transen babesa espainiar antolamendu juridikoan:
aipamen berezia Euskadiko kasuari*

GEEAren 21830/93 epaia, 1997ko apirilaren 22koa, X, Y eta Z Erresuma Batuen kontra.

GEEAren 28957/95 epaia, 2002ko uztailaren 11koa, Christine Goodwin Erresuma Batuen kontra.

GEEAren 35968/97 epaia, 2003ko ekainaren 12koa, Van Kück Alemaniaren kontra.

a.2.) EBJAren jurisprudentzia

EBJAren C-13/94 epaia, 1996ko apirilaren 30ekoa, P. S. eta Cornwall County-ren kontra, ECLI:EU:C:1996:170.

EBJAren C-117/01 epaia, 2004ko urtarrilaren 7koa, K.B. National Health Service Pensions Agency eta Secretary of State for Health-en kontra, ECLI:EU:C:2004:7.

EBJAren C-423/04 epaia, 2006ko apirilaren 27koa, Sarah Margaret Richards v Secretary of State for Work and Pensions-en kontra, ECLI:EU:C:2006:256.

EBJAren C-451/16 epaia, 2018ko ekainaren 26koa, MB Secretary of State for Work and Pensions-en kontra, ECLI:EU:C:2018:492.

b) *Espainiako jurisprudentzia*

Konstituzio Auzitegiaren 99/2019 epaia, 2019ko uztailaren 18koa. Erref.: Aranzadi, RTC\2019\99.

Auzitegi Gorenaren 1987ko uztailaren 2ko epaia. Erref.: Aranzadi, RJ\1987\5045.

Auzitegi Gorenaren 1988ko uztailaren 15eko epaia. Erref.: CENDOJ, 9445/1988.

Auzitegi Gorenaren 1989ko martxoaren 3ko epaia. Erref.: Aranzadi, RJ\1989\1993.

Auzitegi Gorenaren 1991ko apirilaren 19ko epaia. Erref.: Aranzadi, RJ\1991\2725.

Auzitegi Gorenaren 811/2002 epaia, 2002ko irailaren 6koa. Erref.: Aranzadi, RJ\2002\7180.

Auzitegi Gorenaren 2016ko martxoaren 10eko autoa. Erref.: Aranzadi, RJ\2016\1392.

Auzitegi Gorenaren 685/2019 epaia, abenduaren 17koa. Erref.: CENDOJ, 4217/2019.